



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **Busturiko San Mames Lantegia: Ondarea**

## **Hezkuntza Baliabide Gisa**

### **GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Tercero Irujo, Gotzon

ZUZENDARIA: Ugalde Gorostiza, Ana Isabel

**2020**

## Laburpena

Lan honen xede nagusia da, kultura ondareak Lehen Hezkuntzan izan dezakeen erabilgarritasun praktikoa aurkeztea. Kultura ondarearen inguruan gatazka kontzeptual amaigabea dagoenez, gero eta kontzeptu integral, holistiko eta sistemikoago gisa hartzeko joera dago. Tendentzia hau hezkuntzan ere antzeman daiteke, ondarea eduki soila izatetik, baliabide didaktiko gisa hartzera eta ondare hezkuntza tankerako ikusmoldeak garatzera hedatu baita. Halaber, zenbait proposamen didaktiko eskaintzen dira, arazoan ebazpen estrategiak sustaturiko eskola ikerketak aplikatzen dituztenak.

*kultura ondarea, baliabide didaktikoa, ondare hezkuntza, arazoan ebazpen estrategia, lehen hezkuntza*

El principal objetivo de este trabajo es mostrar la utilidad práctica que el patrimonio cultural puede llegar a tener en el ámbito educativo. El patrimonio cultural está inmerso en un conflicto conceptual constante, aunque no hay un claro consenso en torno a él. Aun así, parece haber una tendencia a definirlo desde una mirada más integral, holística y sistémica. Del mismo modo, también puede apreciarse dicha inclinación en la educación. Ya que de percibirse como contenido curricular, pasa a comprenderse como recurso didáctico y a elaborarse ideas como la educación patrimonial. Del mismo modo, se presentan varias propuestas didácticas de investigación en el aula basadas en la estrategia de resolución de problemas.

*patrimonio cultural, recurso didáctico, educación patrimonial, estrategia de resolución de problemas, educación primaria*

The main aim of this work is to explain the usefulness the cultural heritage may have in the education field. The cultural heritage is immersed in a constant concept conflict, although there is no a clear consensus around it. However, it seems to be a trend to define it with a more comprehensive, holistic and systemic viewpoint. Similarly, this inclination can also be perceived in education, while it had just been seen as a curricular content, now it has begun to be used as a didactic resource. Furthermore, concepts like heritage education have emerged. Likewise, several didactic proposals for classroom research based on the problem solving strategy are presented.

*cultural heritage, didactic resource, heritage education, problem solving strategy, primary education*

# Aurkibidea

Sarrera.....	5
1. Justifikazioa .....	6
2. Marko Teorikoa.....	7
2.1. Kultura ondarea hezkuntzan.....	7
2.1.1. Kultura ondarearen hurbilketa kontzeptuala .....	7
2.1.2. Kultura ondarea eta hezkuntza.....	8
2.1.3. Kultura ondarea hezkuntza curriculumetan.....	10
2.1.4. Ikas-irakaskuntza eredu baterantz.....	11
2.1.5. Arazoen ebazpena ikas-irakaskuntza estrategia gisa.....	13
2.2. Busturiko San Mames lantegia .....	14
2.2.1. Aurrekariak .....	15
2.2.2. Fabrikaren sorrera, faseak eta itxiera.....	15
2.2.3. Ekoizpena.....	17
3. Proposamen didaktikoa .....	19
3.1. 1-2 ikasmailetarako arazo egoera eta saioak.....	20
3.1.1. Arazo egoera .....	20
3.1.2. Saioak.....	21
3.2. 3-4 ikasmailetarako arazo egoera eta saioak.....	26
3.2.1. Arazo egoera .....	26
3.2.2. Saioak .....	27
3.3. 5-6 ikasmailetarako arazo egoera eta saioak.....	32
3.3.1 Arazo egoera .....	32
3.3.2. Saioak .....	33
3.3.2.1. Gizarte Zientziak.....	33
3.3.2.2. Balio Sozial eta zibikoak.....	36
3.3.2.3. Arte Hezkuntza .....	38
3.3.2.4. Hiru ikasgaiak barne hartzen dituztenak .....	40
4. Ondorioak.....	40
5. Mugak eta hobekuntza proposamenak .....	41
6. Erreferentzia bibliografikoak.....	44
7. Eranskinak .....	47
2.2.1 Eranskina: Busturialdeko kokapen geografikoa.....	48
2.2.2 Eranskina: Zuhaitz genealogikoa .....	49
2.2.3 Eranskina: Enpresako akziodunak .....	50
2.2.4 Eranskina: "Flow blue" teknika .....	50

2.2.5 Eranskina: lizenaren hasierako letrak.....	51
3.1.2. 1-2 ikasmailetako fitxak.....	52
3.2.2. 3-4 ikasmailetako fitxak.....	57
3.3.2. 5-6 ikasmailetako fitxak.....	65

## Sarrera

Guztiok jaio, hazi eta hilko gara kultura jakin batean. Kultura horietako bakoitzak, berezkoak dituen ezaugarrien bereizgarri diren hainbat arrasto uzten ditu oinordekotzan. Arrasto hauei, kultura ondarea deritzogu. Historian zehar, etengabe aldatu den eta aldatzen ari den kontzeptua izaki, definizio eta elementu anitz esleitu izan zaizkio. Ia non-nahi dauden, baina, sarritan baztertzen ditugun baliabide anitz hauek, ekarpen garrantzitsuak egin ditzakete gure heziketan. Hala ere, aditu askok baliagarritasun pedagogiko handia aitortu arren, indarrean dauden curriculum dekretuen ikerketek erakusten dutenez, berezkoa duen potentzialtasun hori ukatzen zaio kultura ondareari.

“Busturiko San Mames Lantegia: Ondarea Hezkuntza Baliabide Gisa” izenburu dun GrAL honetan, nabarmendu egin nahi da kultur elementu orok hezkuntzan izan dezakeen erabilgarritasuna. Horretarako, elkarren osagarri diren bi zati nagusitan banatu da lana. Gero, hirugarren zati batean, eginiko lanaren inguruan aritzeko. Hasteko, arlo teorikoa garatuko da. Jarraian, kultura ondare eredu zehatzaz baliatuz, zenbait proposamen didaktiko aurkezteko. Bukatzeko, lanean ateratako ondorioak, eta prozesuan sortutako zailtasunak agerian jarriko dira.

Atal teorikoari dagokionez, lehenik eta behin, kultura ondarearen hurbilketa kontzeptuala egiten saiatuko da. Halaber, hezkuntzarekin daukan lotura eta egungo dekretu ezberdinetan daukan presentzia ezagutuko dira. Azkenik, ikas-irakas estrategia eredu proposatzeko. Honen ostean, hezkuntza baliabide gisa erabiliko den San Mames lantegiaren inguruko atal ezberdinak azalduko dira. Hala nola, sorrera eta ekoizpena.

Behin atal teorikoa ezaguturik, hiru arazo egoera proposatuko dira. Bata, Lehen Hezkuntzako 1 eta 2. ikasmailetarako, bestea 3 eta 4. ikasmailetarako, eta azkena, etapako azken bi ikasturteetarako. Ziklo bakoitzeko edukietara egokitutako arazo egoera horietako bakoitzak, San Mames lantegia izango du baliabide gisa. Orobat, marko teorikoan garatutako ideiak aplikatzen saiatuko da.

Bukatzeko, lanean zehar landutakoaren ondorioak azaldu ostean, prozesuan zehar aurkitu diren zailtasunak azaltzeaz gain, hauetako batzuk hobetzeko zenbait neurri posible azalduko dira.

## 1. Justifikazioa

Ohiturak eta historia ulertzea gogoko duen pertsona izaki, interes handia izan ohi dut azken urteetan Busturiko, inguruetako eta, oro har, Euskal Herriko istorioak, usadioak, gertaera historikoak... ezagutzeko. Hala ere, hain da zabala aukera, ze gauza batzuk ezagutzea zaila den. Txikitatik entzun izan dut Busturian zeramikazko artikuluak sortzen zituzten lantegia egon zela aspaldi. Gogoratzen dudan lez, inoiz herriko eskolan aipatutako gaia baitzen. Hala ere, ezer gutxi gehiago nekien. Ezta nire ingurukoek ere.

lazko ikasturtean, 3. mailan, ondarearen inguruko proiektua diseinatzeko zeregina planteatu zitzaigun Gizarte Zientziak eta bere Didaktika II ikasgaietan. Proiektu horretarako, taldekideon herri eta hirietako ondarea identifikatu ostean, Busturiko ondare ezberdinak lantzea erabaki genuen. Horrenbestez, GrAlari aukera aproposa neritzon lan hartan eginiko lana berrikusteko eta gaian gehiago sakontzeko. Halaber, Practicum III-a Busturiko eskolan egiteko aukera izango nuenez, lan honetan aurkeztutako esku hartzea aurrera eramatea ahalbidetuko zekidakeen.

Behin gaia zehazturik, herriko ondare elementu ezberdinen artean bakarra hautatu nahi nuen. Hiru baitziren buruan nituen aukerak: Errege bidea, Madariaga dorretxea eta San Mames lantegia. Hiruren artean zein aukeratu pentsatu ostean, azkenean San Mames lantegia hautatzea erabaki nuen. Alde batetik, arestian aipatu bezala, ez nuelako asko ezagutzen eta horrenbestez, sakonago ezagutzeko aukera izango nukeelako. Eta bestetik, beste ondare elementu askotan ez bezala, gutxi baitira lantegi honen inguruan aurki daitezkeen arrastoak. Ekoitzitako artikulu gehienak museoetan edo bilduma pribatuetan daudelako eta azpiegiturak eraitsita edo oharkabean pasatzen direlako. Zaila da, beraz, lantegia ondo ezagutzen duen norbait aurkitzea edo norbera ikertzen hastea. Orobat, herriko eskolarako esku hartzea diseinatzeko asmoa nuenez, umeei herria pixka bat hobeto ezagutzeko harri-koskorra ekarriko nukeen. Honekin, ikasleak herriko ezkutuko aberastasunez jabetzea lagunduz.

## 2. Marko Teorikoa

### 2.1. Kultura ondarea hezkuntzan

#### 2.1.1. Kultura ondarearen hurbilketa kontzeptuala

Gero eta azkarrago aldatzen ari den gizarte globalizatuan, berau osatzen duen elementu orok jasotzen du birsortzeko eraginen bat. Aldaketa prozesu etengabe honek ondarea kontzeptua ere hartzen du bere baitan. Izan ere, bibliografia zientifikoari erreparatuz gero, ondarea kontzeptu aldagarri, ireki eta dinamikotzat hartzen baita (Hernandez, 2003; Blanco, Ortega eta Santamaria, 2003).

Llull Peñalbaren (2005) hitzetan, ondare kontzeptua erlatiboa denez, interakzio ezberdinak eratzen dira pertsonen eta ondareen artean. Harreman mota anitz hauek elementu jakin batzuk babestea eta gainerakoak baztertzea eragiten dutelarik. Erlatibotasun hau ondo antzeman daiteke Cuencak (2002) eta Llull Peñalbak (2005) ondare kontzeptuak historian zehar jaso dituen ikuskera ezberdinak azaltzen dituztenean. Antzinaroan, adibidez, elementuen babesa, objektuon antzinakotasunean, bitxitasunean edo edertasunean oinarritzen zen. Aitzitik, ondareak Espainian izan zuen lehen gorakada, Autonomia Erkidegoen sorketarekin batera eman zen. Lurralde bakoitzak bere mugak eta identitatea aldarrikatzeko beharra edo nahia indartu zenean (Jimenez de Madariaga, 2002). Hots, hasiera batean objektuen balio materialagatik babesten ziren bitartean, gerora, identitate sozialaren ikur modura hartzen hasi ziren.

Azaldu bezala, gizarte bakoitzak, baita gizarte horretako arlo ezberdinek ere, ondarea ikuskera ezberdinetatik ulertu izan dute. Horrek terminologia ezberdinak agertzea eragin du, eta eragiten du. Termino bakoitzak, diziplina zientifiko edo garai jakin bateko ideiak barne hartuz. Beraz, Cuencaren (2002) tesia berreskuratuz, nahiz eta ondare hitzari adjektibo ezberdinak atxikitu zaizkion, 80. Hamarkadan, gizarteak sortutako elementu material zein ez material oro barne hartzen duen *kultura ondarea* nabarmendu zen. Gerora, *ondare integrala* terminoa aurkeztu zen. Kontzeptu honek, gizartearen eta naturaren arteko elkarrekintza harremana aintzatesten duenez, natura ondarea ere hartzen du bere barnean. Hala ere, alderdi soziala eta ondare ez materiala baztertzen dira (Lopez Cruz, 2014; Lucas Palacios, 2018). Aurrerago, diziplina etnologikoak, *ondare holistikoa* proposatu zuen, ondare integralaren izaera global eta sistemikoa mantenduz, baina arlo soziala ere nabarmenduz. Bestalde, badaude beste zenbait kontzeptu ere. *Paisaia kulturala* esate baterako. Licerasek (2017) dio paisaia gizarte produktu gisa hartzea, jendartearen eta inguruaren arteko epe erdi-luzeko interakziotik sortu dena. Hau da, paisaia bera ondare bezala hartzen du, zein gizartearen eta

naturaren artean dagoen etengabeko harreman estuaren ondorioz eratzen ari den. Ideia honek bat egiten du, hein batean, *Ondare biziarekin* (Alivizatou, 2008).

Ikus daitekeen lez, joera handia dago kontzeptu integral, holistiko eta sistemikoak proposatzeko. Horrenbestez, interesgarria da Lopez Cruzek (2014) bere tesian laburbiltzen duen ideia, ondarea konstruktuko *konplexu eta ebolutiboaz* *erlatibo eta kritikoa*-tzat hartzen duenean.

Laburbilduz, lan honetan ondarea gizarteak balioesten duen edozein elementu modura hartu da. Gainerako elementuekin elkarrekintzaren ondorioz sortu dena eta ikuspegi ezberdinetatik aztertu daitekeena. Hori guztia, Cuencak (2002) defendatzen duen kultura ondarea termino pean.

### 2.1.2. Kultura ondarea eta hezkuntza

Antzinaroan jada, Platonek estatuak erabat kontrolatutako hezkuntza defendatzen zuen (Mie, 2005). Honen arabera, estatuak nahieran antola zezakeen hezkuntza bere idealetan eta nahietan oinarrituz. Honekin loturik, Zabaleta Imazen hitzak ditugu:

hezkuntza-sistemaren monopolioa kultur asimilaziorako tresna zuzena dela esan daiteke; honen bidez, Estatu nazioa eta kultura horien kultur garapena baldintzatzen, indargabetzen edo itotzen –ez gutxitan- saiaturiko da, kolokan ipintzen baitute beharrezkoa zaion kultur homogeneitatea, Estatu-nazioari identifikazio-oinarri indartsua ematen diona hain zuzen.

(Zabaleta Imaz, 2000, 20.or)

Beraz, argi dago, hezkuntza-sistemaren ardura osoa estatuak soilik izatean, beraien nahiak ahalik eta hoberen defendatzen dituzten hezkuntza legeak ezarriko dituztela. Horrela, estatuaren idealak jarraitzen dituen gizarte homogeneoa eratzeko asmoz. Ideia honek, neurri batera edo bestera, gaur arte iraun duela antzeman daiteke, gobernu aldaketan ostean, maiz, hezkuntza dekretu berria ezartzen baita. Orobat, kultur identitate sendoa sortzea funtsezkoa denez estatu bateratua izateko, ondare elementuak kultur adierazpen diren heinean, eduki baliagarriak izan dira hezkuntza sisteman.

XXI. mende honen lehen urteetara arte, ondarea eduki gisa erakutsi izan da, eta horrenbestez, ikasgai gutxi batzuetan baino ez da landu izan. Gainera, arlo horietako edukien arteko lotura eskasa edo ezaren ondorioz, ez da kultura ondarearen izaera sistemiko, integral eta holistikoa aintzatetsi. Hots, ondare elementuen dimentsio txikia baino ez da landu. Aitzitik,



UNESCO-k eta Europako Kontseiluak, agiri ezberdinen bitartez, ondare hezkuntza ikuspegiaren hedapena sustatu dute azken hamarkadetan. Hezkuntzaren eta Ondarearen Plan Nazionalaren (2015) definizioari erreparatuz gero, subjektuaren (norbanakoa zein soziala) eta ondarearen arteko harremanen ulertze eta garapenera bideratuko da ikuspegi berri hau. Dibertsitatea, kontzeptu bien ezaugarri delarik (Marin-Cepeda, Garcia-Ceballos, Vicent, Gillate eta Gomez-Redondo, 2017).

Halaber, bai Garcia Valecillok (2009) bai Ondarearen eta Hezkuntzaren Plan Nazionalak (2015) azaldu legez, ondare hezkuntza ez litzateke hezkuntza formalera soilik mugatu beharko. Hezkuntza formala, ez formala zein informalean sustatu baitaiteke gizarte agente ezberdinen bitartez. Arlo bakoitzean zeregin ezberdina burutuz, baina guztiak era koordinatuan helburu bat lortzeko. Ikuspegi honek, kultura ondarea bezala, Von Bertalanffy-ren (1968) sistema irekia kontzeptua jarraitzen du. Beraz, ondorioztatu daiteke, ondare hezkuntzak ere ikuspegi sistemiko eta globala hartzen duela. Sistemikoa gizarteko agente ezberdinen elkarrekintza eskatzen duelako. Eta globala, diziplina bakarreko ikuspegira mugatu beharrean, diziplina arteko ikuspegia duelako (UE, 1998).

Baina zeintzuk dira ondare hezkuntzaren helburuak? Esteparen (2001) ustez, ondarearen ezagutza berez ez litzateke helburu bat izan beharko. Aitzitik, irakaskuntza prozesuan integratu beharreko elementua da. Horrenbestez, kultura ondarea baliabide didaktikoa izan beharko litzateke, etapako helburuak lortzen lagundu beharko lukeena. Batik bat, Gizarte Zientzien irakaskuntzan, errealitate soziala ulertzen lagunduz (Estepa, 2001 eta Cuenca, Estepa eta Caceres, 2011). Halaber, Cuenca eta Lopez Cruzek (2014), izaera ikertzaile, soziokritiko eta interdiziplinarra duen ondare hezkuntza desiragarria planteatzen dute, zeinen helburuak hurrengoak diren: errealitatearen ezagutza kritiko eta erreflexiboa erraztea; garapen jasangarriaren kontra egiten ez duten kultura aniztasunaren, biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen defentsarako baloreak sustatzea; norbere zein gainerakoen kultura zeinu adierazgarriak baloratu eta errespetatzea; enpatia soziokulturala indartzea; eta ondarea gizartaratzea.

Bukatzeko, azaldu den lez, hezkuntzaren dimentsio ororen arteko lan koordinatuaren bitartez ondare elementuak baliabide gisa erabiltzeak, hainbat ekarpen egin ditzake. Izan ere, besteak beste, balio zibiko, etiko eta afektiboak sustatu daitezke ondare elementuak zaintze eta babeste aldera; eta norbanakoaren kultura identitatea garatzen lagun dezake. Horrela, iraganeko zein egungo gizarteak ulertzea erraztuz.

### 2.1.3. Kultura ondarea hezkuntza curriculumetan

Hezkuntza dekretu berria ezartzen denean, hainbat dira ikas-irakaskuntza prozesuaren inguruan dauden arlo ezberdinek jasaten dituzten aldaketak. Aldaketa horietako batzuk, xumeak izan ohi dira. Beste batzuk, ordea, deigarriak. Halaber, dekretuetan zehazten diren arlo asko aldaketa gutxi batzuekin mantendu ohi dira. Ondarearen trataeran esate baterako, Fontal, Ibáñez, Martínez eta Riveroren (2017) esanetan, ondarearen lehen aipamena, inplizitua, 1970eko Hezkuntza Lege Orokorrean izan zen. Gerora, 90. hamarkadan, L.O.G.S.E-k ondarearen aipamen esplizitua egin zuen, baina jarrerazko eduki gisa eta arlo gutxi batzuetan soilik. L.O.E-k ordea, ikuspegi orokorrako batetik hartu zuen ondarea. Ezagutu, ulertu, baloratu eta zaindu behar den identitate erreferente gisa hartzen baitzuen. Orobat, L.O.M.C.E legeak ere moldaketa berriak dituen arren, ez dute aldaketa errealik suposatzen (Escribano-Miralles eta Molinaren 2015).

Urteek aurrera egin ahala, ondareak curriculumetan izan duen garapenaren inguruko ondorioak lortzeko, ezinbestekoa da Dekretu bakoitzak elementu kultural horiei ematen dien presentzia adierazteko ikerketak egitea. Pinto eta Molinak (2015) aipatzeke, Murtziako 198/2014eko Dekretua eta Portugaleko *Despacho nº 17169/2011* hartu zituzten, ondareak hauetan daukan presentzia ikertuz. Ikerketa honetan, lehenik, termino ezberdinen bilaketa kuantitatiboa egin zen. Ondoren kualitatiboki aztertuz, ondarearekin daukaten lotura behatzeko. Halaber, Gonzalezek (2011) 2006/1513 Errege Dekretua aztertu zuen, ondareari ematen zaion trataera edo garrantzia ikertu nahian. Autore hauek zenbait ondorio nagusi komun atera zituzten:

Taula 1

#### *Hezkuntza Dekretuen analisisien ondorio komun nagusiak*

2006/1513 Errege Dekretua	198/2014 Dekretua
Presentzia eta koherentzia gutxi	Presentzia gutxi eta era ez egokian
Gehienbat kompetentzia artistiko eta kulturalarekin lotura	Gehienbat Arterako kompetentziarekin lotura
Kompetentzia ezberdinak garatzeko potentziala izan arren, gutxi batzuetan baino ez dago aipamenik	Desoreka nabarmena, daukan potentzialaren eta curriculumeko presentziaren artean
Baloretan heztera bideratuta. Ez da hezkuntza demokratikoarekin, ezta pentsamendu kritiko eta sozialarekin lotzen	Jarrerazko edukiak gehienbat. Gutxitan egiten da kontzeptuzko edukiarekin loturarik eta egiten denean artearen historiarekin lotuta

**Nota.** Iturria: Gonzalez (2011); Pinto eta Molina (2015)

Bai autoreek bildutako ondorioek, bai 198/2014 dekretuak ondare ez materialaren aipamenik ez egiteak (Pinto eta Molina, 2015), argi erakusten du azken hezkuntza dekretuek ondarea elementu artistikotzat hartzen dutela. Kultura ondareak daukan potentzialtasuna, hauen kontserbazio eta errespetuzko jarrerak bultzatzeko eta artearen konpetentziako kontzeptu gutxi batzuk ikasteko funtziora mugatuz, Fontalek (2006) aitortzen dion izaera interdiziplinarra alde batera utziz.

Arestian aipatutako ikerketen ondorioak, EAEko mugetatik at dauden dekretuetan oinarritzen badira ere, abiapuntu izan dakizkiguke EAEko lurraldeari dagokion *236/2015 Dekretutik* atera ditzakegun ondorioak antzemateko. Izan ere, estatuko autonomia erkidegoek hezkuntza curriculumak moldatzeko gaitasuna izan arren, curriculum autonomiko ezberdinen arteko aldeak bakan batzuk baino ez dira (Molina eta Calderon, 2009).

Laburbilduz, 70.hamarkadatik aurrera, hezkuntza dekretu ezberdinak indarrean egon diren arren, aldaketa txikiak baino ez ditu jasan ondareak. Halaber, aldaketa hauek ez omen dute inolako eraginik izan, ondarearen presentzia, kuantitatibo zein kualitatiboki berdintsua izan baita dekretu guztietan. Horrenbestez, curriculum dekretu guztiek, ondarearekiko ikuspegi erredukzionista izan dute. Izan ere, autore ezberdinek ondareari atxikitzen dioten baliagarritasun pedagogikoa baztertua izan ohi da, jarreraren edo balioen irakaskuntzara mugatuz. Batik bat, konpetentzia artistiko eta kulturalarekin lotuta. Egoera ikusita, ezinbestekoa da autore ezberdinek aitortzen dioten potentzialtasuna aintzatetsiz, ondare hezkuntzak, batez ere, konpetentzia sozial eta zibikoan egin ditzakeen ekarpenak aztertzea. Baina nola landu beharko litzateke ikaskuntza esanguratsua lortzeko? Jarraian garatuko den puntuan, galdera honi erantzuten saiatuko da.

#### **2.1.4. Ikas-irakaskuntza eredu baterantz**

Hararik (2015) azaltzen duen bezala, XV. mendean, gizakia konturatu zen ez zeukala bizitzaren inguruko galdera askoren erantzunik. Halaber, ezjakintasun hau, ikerketa zientifikoaren bitartez konpon zitekeela ohartu zenean, gizartearen garapena bultzarazi zituzten ekarpen handiak egin ziren. Prozesu hau, Iraultza zientifikoa bezala da ezaguna.

Ordotik, nabarmen hazi da ikerketa zientifikoetara bideratutako kapitala, gero eta aurrerapen gehiago eginez diziplina zientifiko ezberdinetan. Hezkuntza arloan adibidez, hezkuntza teoriak, psikologia, soziologia, neurologia, pedagogia eta beste hainbat diziplinetako aurrerapenei esker garatu dira.

Tradizionalki, paradigma konduktista eta kognitibistetan kokatu izan dira metodologiak. Teoria hauen atzean dauden printzipio filosofikoez, errealitatea objektiboa dela eta, horrenbestez, norbanakoarengandik at dagoela aitortzen dute (Moreno Martín, Martínez Martínez, Moreno Martín, Fernandez Nieto eta Guadalupe Nuñez, 2017). Ikuspegi hauek aintzat hartzen dituzten metodologia tradizionalak, emaitzetan zentratzeaz gain, irakasleari aitortzen diote prozesuko zereginik inportanteena. Bera baita, errealitate objektiboaren ezagutza daukana.

Ostera, hezkuntza zientzietako aurrerapenei esker, asko XX. mende hasieratik ezagunak bederen, hezkuntza teorietan oinarritutako metodologia berritzaileek gora egin dute azken hamarkadetan. Hauetako hainbat, paradigma konstruktibistan (Bereiter, 1994) kokatzen dira. Ikuspegi honek, Díaz Barriga eta Hernández Rojasen (1999) arabera, ezagutza ingurutik era pasiboan jaso beharrean, norbanakoak aktiboki eratzten duela defendatzen du. Ikuspegi hau jarraiki sortutako metodologiek beraz, emaitzarena ez ezik, prozesuaren garrantzia ere nabarmentzen dute. Halaber, paper nagusia ikasleak hartzen du. Bai ikaslearen bai irakaslearen lana birdefinituz.

Metodologia berritzaileak izateak, berez, ez du adierazten metodologia tradizionalak baino hobekien direnik, lortu nahi diren helburuen arabera, erabilgarriagoa izango baita metodologia jakin bat erabiltzea. Behe mailako helburuak lortu nahi izanez gero adibidez, edozein metodologia omen da eraginkorra. Aitzitik, goi mailako helburuak (pentsamendu kritikoa, ikaskuntza autonomoa...) lortu nahi izatekotan, metodologia aktiboak eraginkorragoak dira (Fernandez, 2006).

Ondare hezkuntzari dagokionez hainbat dira ikuspegi konstruktibistaren ereduak jarraitzen duten autoreak. Cuenca Lopez, Estepa Giménez eta Martín Cáceresek (2011) esate baterako, eskola ikerketa deritzote ikaskuntza esanguratsua lortzeko metodologiarik egokiena. Era berean, Cuenca eta López Cruzek (2014) proposatu eta gerora Lucas Palacios (2018) bat egiten duen legez, ondare hezkuntzak zenbait estrategia metodologiko izan beharko lituzke: 1) arazoaren ebazpenetan oinarritutako unitate didaktikoak biltzea; 2) ikasleek kontaktu zuzena izatea ondare elementuekin edota simulazio birtualak erabiltzea; 3) motibazioa sustatzea eta edukiak testuinguruan kokatzea; 4) proposamen interaktibo eta norabide anitzekoak erabiltzea; eta 5) ondarearen interpretazioa ahalbidetzen dituzten jarduerak proposatzea.

Aipatu legez, metodologia aktiboaren alde egiten dute autore ezberdinek. Izan ere, xedeen artean goi mailako helburuak lortzea dagoenez, egokia baita ikasleari bere ikaskuntza prozesua auto-erregulatzeko aukera, eta betekizuna, eskaintzea. Era berean, Fernandez

(2006) esanetan, ezagutzaren jendarteaz gain, ikaskuntzaren jendartearen bada. Norberak bere ikaskuntza bideratzea orduan, funtsezkoa bilakatzen da bizitzako esparru guztietan ondo moldatzeko gaitasunak eskura daitezkeen.

### 2.1.5. Arazoen ebazpena ikas-irakaskuntza estrategia gisa

Arestian aipatu den bezala, metodologia mota ezberdinek onura desberdinak izan ditzakete ikas-irakaskuntza prozesuan. Arazoen ebazpen estrategiak, metodologia ez bada ere, ikaskuntza estilo aktiboaren ezaugarri asko betetzen ditu. Gaullin-entzat (2001) arazoak suposatzen du hausnarketa, araketa zein ikerketa barne hartzea, erantzuna emateko ebazpen ezberdinak aintzat hartzea eta berehalako erantzuna eskaintzen ez duen ebazpen estrategia definitzea. Ikus daitezkeen lez, bat dator arestian azaldu den ondare hezkuntzaren irakaskuntzaren ezaugarriekin. Era berean, hezkuntza curriculumeko eskakizunetara egokitzen da, Berritzegune nagusiak (d.g.) defendatzen baitu, arazo egoerak ebazteko gaitasuna daukaten pertsonak hezi behar direla.

Cohen-en (1977) aburuz, arazoaren ebazpen terminoaren jarduera ezberdin asko hartzen direnez, zaila da interpretazio teorikoa egitea. Hala ere, Perales Palaciosentzako (1993) "arazoa" aurreikusitako edo bat-bateko edozein egoera litzateke. Alde batetik, zalantza edo ziurgabetasuna sortzen duena, eta bestetik, ebazpena bilatzeko jokabidea sustatzen duena. "Ebazpena" ordea, labur azalduz, erabilgarria da arazoa ebazteko prozesua izendatzeko (Dumas Carré, 1987). Azkenik, "estrategia" hitzak, informazioaren jabetzearekin, gordetzearekin eta erabilpenarekin lotutako erabaki eredu bati egiten dio erreferentzia, emaitza jakin batzuk lortzeko baliagarria dena (Bruner, 1984). Azken termino honi dagokionez, Rizo Cabrera eta Campistrous Pérezek (1999) bi motatakoak izan daitezkeela diote: ia automatizatuta daudenak, estrategia inkontzienteak deritzenak. Eta, kontzienteak, erabili baino lehen aurretiko analisia eskatzen duten estrategiak.

Polya-k (1989) dio, lanean hastean, seguruenik arazoaren ikuskera osatugabea izango dugula. Lanean aurrera egitean, ikuspegi aldatu egingo dela. Eta, azkenik, arazoa ebaztearen gaudenean ere, beste ikuspegi berri bat izango dugula. Proposatutako arazoarekiko daukagun ikuspuntua, beraz, ebazpena bilatzeko prozesuan zehar jasotako informazioarekin lotuta legokeela esan daiteke. Orobat, lanaren lau fase edo etapa ezberdin banatzen ditu.

1. *Arazoaren ulermena*: Ikasleak arazoa ulertzeaz gain, ebazteko nahia izan behar du. Hori lortzen ez bada, ez da beti bere errua, balitekeelako arazoaren planteamendua egokia ez izatea.

2. *Plan baten eraketa*: Aurreko fasetik, bigarren honetara heltzeko bidea luzea izan daiteke. Arazoa ebazteko funtsezkoena, plan baten ideia garatzea da. Aitzitik, ideia hau gutxika-gutxika sor liteke.
3. *Plana betetzea*: Planak jarraibide orokorrak zehazten ditu, baina xehetasunek elkarren artean ondo ahokatzen dutela ziurtatu behar da. Horrenbestez, ondo behatu behar dira detaileak, akatsak saiheste aldera.
4. *Atzera begiratzea*: Eraitza berriz pentsatzean edo ebazpena zein prozesua aztertzean, ezagutzak finkatu daitezke. Baita arazoak ebazteko gaitasunak garatu ere.

Ikas-irakaskuntza prozesua estrategia mota honen bitartez bideratzea oso interesgarria izan daiteke. Lehenengo, Vergara Ramirezek (2015) aipatzen dituen *nahi dugulako* eta *zerbaitetarako ikasten dugu* irizpideak betetzen dituelako. Hots, arazoari konponbidea bilatzeko motibazioa sorraraziko litzateke ikasleengan eta eskuratutako ezagutzak aplikatuko lituzkete. Eta bigarren, unitate didaktikoak bideratzeko baliagarria izateaz gain, metodologia ezberdinetan antzeman daitekeen elementua baita. Hala nola, egun hain entzute handia daukaten arazoetan oinarritutako metodologian edota proiektuetan oinarritutako metodologian.

## 2.2. Busturiko San Mames lantegia

Gutxi dira Busturiko San Mames fabrikaren inguruko lanak. Gainera, lan hauek testu urri batzuetan baino ez dira oinarritzen. Lanik garatuena 1987an Javier González de Durana eta Kosme M<sup>a</sup> de Barañanok idatzitako *La fábrica de porcelana de "San Mames" en Busturia (Bizkaia)* omen da. Bertan, Angel Apraizek aurretiaz eginiko lanaren berrikuspina egiteaz gain, hura osotzen dute. Beste lanen artean, aipatzekoa da Busturiko Udalak, Labayru Fundazioaren bitartez eginiko bideoa. Baina honek ere lehenago argitaratutako lana dauka erreferentzia nagusi gisa. Lan honetarako nagusiki erabiliko den González de Durana eta Barañanoren (1987) lana hain zuzen ere. Horrenbestez, ideia jakin batzuk azaltzeko beste autore batzuk aipatuko badira ere, gainerako informazioa González de Durana eta Barañanoren lanetik eskuratu da.

Atal honetan, San Mames lantegiaren inguruko puntu ezberdinak garatuko diren arren, hasteko, komenigarria izan daiteke Busturiren kokapen geografikoa egitea.

Busturia, Bizkaiko Urdaibaiko Biosfera Erreserban kokaturik dagoen herria da. Lur azalera guztia, aipaturiko Biosfera Erreserban kokaturik daukan herri honek, Urdaibaiko paduraren lurralde zati handia hartzen du. Halaber, beste 19 udalerrirekin batera osatzen duen Busturialdea eskualdeari ([2.2.1 eranskina](#)) izena ematen dio. Eskualdeko Bermeo, Sukarrieta, Arrieta, Errigoiti, Murueta eta Gautegiz-Arteaga herriak ditu mugakide. Baita Gernika-Mundakako Itsasadarra ere ekialdean.



Iturria: Busturiko Udala

### 2.2.1. Aurrekariak

XVIII. eta XIX. mendeetan, mundu osora hedatu zen prozesu iraultzailea hasi zen Ingalaterran. Industria Iraultza hain zuzen ere. Horrela, ordura arte eskuz egiten ziren lan asko mekanizatzea eta ekoizpen prozesua banatzea suposatu zuenez, produktibitateak nabarmen egin zuen gora. Era berean, Lehen Guda Karlista bukatzean eta 1841ean estatuko aduanak kostaldera mugitzearekin batera Gaztelako komertzioa zabaldu zenez, egoera aproposa sortu zen euskal lurraldeetan industrializazioa gara zedin, Bizkaia eta Gipuzkoan batez ere (Busturiko Udala, 2018)

Garai hartako "boom" industrializatzaile horretako lantegi aipagarrienak siderurgiarekin lotutakoak badira ere, bestelako industriak ere garatu ziren. Hala nola, ehungintza, papergintza, irinak, txokolateak eta porzelana. Azken multzo honetan kokatu behar da, alegia, Busturiko San Mames lantegia. Apraizekin (1951) bat, estatu mailan antzeko fabrikak aurki zitezkeen: Sargadelosen (Lugo), Sevillan, Cartagenan (Murtzia) eta Nafarroan, adibidez. Hala ere, Busturiko Udalak (2018) dioen lez, Bizkaian aitzindaria izan zen Busturiko fabrika hau.

### 2.2.2. Fabrikaren sorrera, faseak eta itxiera

Busturiko Udalaren (2018) bideoan aipatzen den bezala, Erdi Arotik aurrera, batez ere Aro Modernoan, udalerrri guztietan zeuden teilak eta adreiluak sortzen zituzten teileriak. Busturin ere hala izan zen. Orobat, teileria hau izan omen zen buzingintza enpresa honen aitzindaria. Izan ere, Delmasen arabera, lantegi horren ondoan, adreiluak, teilak eta bestelako objektuak egiten ziren teileria bat zegoen, toska fabrikaren sorreraren jatorria izan zena. (Apraiz, 195tik lortua). Era berean, Apraizek fabrikaren kokagunea zehazten zuen dokumentua lortu zuen.

Kokapen hau, Busturiko egungo Itsasbegi tren geltokiaren eta Txatxarramendi irlaren artean finkatzen da. Datua oso adierazgarria da, egun ez baitago lantegiaren arrastorik.



Iturria: Google Maps, 2020 (moldatua)

Orokorrean 1842 urtean zehazten da enpresaren sorrera. Hala ere, Artiñanok lehenago sortu zela uste zuen (Apraiz, 1951tik berreskuratua). Apraiz berak eta Silvánek (1977) ere bat egiten dute horrekin. Silvánek, adibidez, azaltzen du, 1830 aldera adostu zela XVIII. mendetik

lanean zebilen teileria tradizional hura pieza finak sortzeko buztinola modernoan bilakatzea.



Iturria: Google Maps, 2020 (moldatua)

batzuek egin zuten. ([2.2.3 eranskina](#)).

Sorreran parte hartu zuten ekintzaile nagusiak izan ziren, herriko Gaspar de Bulucua, Andrés de Uriarte eta Manuel Santos zein Jose Eusebio Chirapozu anaiak. Hauek ekarri baitzituzten azpiegitura nagusiak. Hala nola, Oñarte errota (Busturia), aipaturiko teileria eta Mallukiza/Itxaserrota (Muruetan). Era berean, familia talde bera osatzen zuten inbertitzaile hauek ([2.2.2 eranskina](#)) enpresaren akzioen %64,16a kontrolatzera heldu ziren. Gainerako akzioen ekarpenak, kide kapitalista ezberdineko Sozietate Anonimo bilakatu zen heinean (Silván, 1977), batetik, Bilboko talde komertzial garrantzitsu batek egin zituen: T. Marurik, Marcelino Orbegozok eta "Orbegozo e hijos" erakundeak. Azken erakunde honen atzean Ambrosio de Orbegozo zegoen. Aurrerago "Banco de Bilbao"-ren fundatzaileetako bat eta banketxe horren lehen zuzendaria izango zena. Eta bestetik, ezer gutxi ezagutzen den inbertitzaile txiki

Caro Barojak (1986) "gentry" bezala definitu zituen ekintzaile familia talde honen aberastasuna, hein handi batean, arbasoek Mexikon lortutako kapitalaren oinordekotzatik eskuratu zuten. Horrenbestez, San Mames sortzea posible egin zuten esparruak hiru direla esan daiteke: 1) kalitate altuko eskaria asetzen lagunduko zuten industria tradizionaleko azpiegiturak; 2) Mexikoko zilar meatzetan lortutako kapitalak; eta 3) Bilboko talde komertzial



garrantzitsu batek eginiko inbertsioa. Guzti honekin, ia milioi bat errealeko inbertsioa egitea lortu zuten.

Bilakaerari dagokionez, bi fase nagusitan bana daiteke enpresa honen bizitza laburra. Hasierako hiru urteetan, 1842-1845, "Sociedad Bulucua, Hurtado y Cia" izeneko erakundeak enpresa sortu eta kudeatu zuela uste da. Aitzitik, 1845ean sozietate berria sortu omen zen kide berriak hartuz. Hala ere, 1849ko berrantolaketaren ondorioz, hainbat kidek alde egin zuten arren, kapitalista berriak sartu ziren.

Urte tarte honetan zein hurrengo urteetan, bi frantses izan ziren ekoizpen zuzendariak. Lehena, Margaine dekoratzaile paristarra. Bigarrena, Ange Decaen. Bigarren zuzendari honek ez omen zuen denbora luzez iraun, Margainek bere itzulerarako baldintza batzuk proposatu baitzituen Decaen heldu eta gutxira. Baldintza horien aurrean, enpresaren zuzendaritzak kontra-eskaintza proposatu zion Margaini.

Marko honen barnean sortu omen zen enpresaren lehen zailtasun nagusia. Autoritate krisia, hain zuzen ere. Gainera, Decaenek langileekiko zeukan zorrotasunak alde batetik, eta Margainek lanpostua kendu zion Decaenengan zeukan jarrera boikoteatzaileak bestetik, hurrengo hilabeteetan gauzatuko ziren protesta, greba eta kaleratzeak eragin zituztela uste da. Tirabira hauen guztien ondorioa, ezezaguna bada ere, litekeena da lantegia alokairuan ematea eta ondorengo itxiera izana.

Bigarren etapa, Manuel Canterok fabrika errentan hartu zuenean hasi zen. 1952. urte aldera. Fase honetan, Gonzalez Agüeros izan zen ekoizpen zuzendaria, baina ez omen zegoen oso gustura San Mames lantegiarekin. Gutxienez, bi aldiz erakutsi baitzuen fabrika Busturitik Bilbora mugitzeko nahia. Horrenbestez, 1962an, errentaren kontratua bukatu zenean, jatorrizko jabeek hartu zuten lantegiaren gidaritza berriz ere. Orduetik aurrera, produkzioa gero eta urriagoa izan arren, gutxienez 1867. urtera arte jardun omen zuen lanean.

### 2.2.3. Ekoizpena

Ekoizpen prozesuari erreparatuz gero, industria iraultzaren eragina antzeman zitekeen. Industria tradizionalan ez bezala, zereginak banatuta egiten omen baitziren. Mallukizan, adibidez, besteak beste, toska ekoizteko berniza eta lurra ehotzen ziren (Apraiz, 1951). Oñarten, ordea, oso argi ez dagoen arren, baliteke apaingarrien koloreak prestatu izana. Bestalde, Busturiko Udalaren (2018) arabera azpiegitura ezberdinetan landutako lehengai guztiak batu, eta lantegiko eraikin berri nagusiko labeetan sartuko lirateke.

Prozesu arrazionalizatu hori zuzentzeko, arestian aipatutako Decaen eta Margaine ekoizpen zuzendari frantsesen lanaz baliatu ziren hasierako urteetan. Busturiko Udalaren

(2018) aburuz, zuzendari hauek, erreminta eta teknologia ezberdinak ekartzeaz gain, langileren bat ere ekarriko zuketena beraiekin. Gainontzeko langileak, gehienbat, herrikoak eta ingurukoak izango ziren. Orobat, Bilboko "Casa de la Misericordia"tik laguntzaileak ere jaso zirela aipatzen da. Silvánnek (1977), ordea, langileak Bilbotik eta Gasteiztik (aitzindaria orduan euskal zeramika jardueretan) zetozela aipatzen du. Aitzitik, aipu hau enpresaren bigarren faseaz hitz egitean egiten duenez, baliteke fase zehatz horri soilik esleitzea.

Lehengaietz aritzean, jatorri ezberdinak zituztela azaltzen da bai Busturiko Udalaren (2018) bideoan eta bai Silvánen (1977) lanean. Kaolina eta silizea adibidez, Ezpeletatik zekarten. Kaolina, gehienbat Iparraldetik bazekarten ere, Busturiatik eta Lumotik ere lortzen zen. Baita, inguruko Kanala (Sukarrieta), Kortezubi, Murueta eta Forua herrietatik ere (Álvarez, Mujika eta Jiménez, 2010). Buztin lurra eta kare hidraulikoa Kortezubitik zekarten batik bat. Azkenik, labeetarako behar zuten zura herriko basoetan hartuko zuketena (Busturiko Udala, 2018).

Busturiko Udalaren (2018) esanetan, "Danetariko eta danetarako ontziak egiten ziran. Era eta mera guztietako ontziteria egiten zan." (12'30"). Frutontziak, platerak, pitxerrak, zopa-ontziak, te eta kafe zerbitzukoak eta bainugelako puskak adibidez. Bai merkeak, egunerokoan erabiltzekoak, bai toska fina zein "erdi portzelana" edo "txina opakua", garestiagoa eta kalitate hobekoak.

Hasieran, apaindu gabeko pieza zuriak eta eskuz dekoratutakoak ekoitzi ziren. Hauetan, dekoratu ezberdinez baliatzen ziren, irudi geometriko zein girlandekin konbinaturik (Álvarez, Mujika eta Jiménez, 2010). Gerora ordea, hobekuntza teknikoaren bitartez, estanzioa erabili zen apaingarri konplexuagoak eratzeko. Azken metodo honekin landutako produktu askok estatuko gainerako fabriketan sortutako produktuen itxura bertsua zeukaten. Oso hedaturik baitzegoen ekialdeko kulturarekiko erakarpina garai hartan.

Estanziozko lanen artean bi dira eredu adierazgarrienak. Bata, "mandazain" edo "mulero" gisa da ezaguna, irudietan, mando batekin ageri den pertsonaia ikus zitekeelako.



Iturria: Álvarez, Mujika eta Jiménez, 2010 (moldatua)

Askotan, hosto ezberdinez osatutako zerrendek inguraturik ageri dira (Álvarez, Mujika eta Jiménez, 2010). Bigarren eredua, "Perejil" edo perrexil bezala ezaguna, azken autore hauek "ezkila- loreenak, peonienak eta dalienak..." (6.or) deritzote. Urdin kobalto koloreko lan hauetan "Flown blue" teknika erabili zen sarri ([2.2.4 eranskina](#)). Bigarren mota hau omen zen kalitate gorenekoa, "txina opakua" delakoa (Busturiko Udala, 2018)



Iturria: González de Durana eta Barañano, 1987



Iturria: Busturiko Udala. 2018



Iturria: Busturiko Udala, 2018

Azkenik, jatorria ziurtatzeko zigilu ezberdinak erabili ohi ziren. Batzuk sinpleagoak, "Busturia" edo "Vizcaya" markatuz. Eta beste batzuk, landuagoak eta ederragoak, kolorez estanpatuak. Hauetan, "Media Porcelana" edo "China Opaca" irakur zitekeen. Halaber, inoiz, enkargua egiten zuenaren izenaren hasierako letrak ere idazten zituzten ([2.2.5 eranskina](#)) (Busturiko Udala, 2018).

### 3. Proposamen didaktikoa


Marko teorikoan garatu den bezala, hezkuntzan, kultura ondarearen erabilera ez litzateke hura ezagutzera eta balioestera soilik mugatu beharko. Ostera, erabilgarritasun handia dauka, baliabide gisa erabiliz, ikasgai ezberdinetako edukiak lantzeko eta horrekin batera zenbait oinarrizko kompetentzia garatzeko.

Atal honetan beraz, LH etapako ikasmaila ezberdinetara bideratutako zenbait arazo egoera proposatuko dira. Bakoitzean, diziplina arteko lanaz baliatuko da, helburu jakin batzuk lortzeko San Mames lantegia baliabide didaktiko modura erabiliz. Arazo egoerak, ikasmaila ezberdinak elkarrekin jarduteko pentsatua daude. 1-2 ikasmailek adibidez, elkarrekin gauzatuko lukete. Berdintsu jardungo lukete 3-4 eta 5-6 ikasmailek ere.

Jarraian, arazo egoera bakoitza eta horiek ulertzen laguntzeko eskema bana aurkeztuko dira. Halaber, arazo egoera bakoitzaren ostean saio sekuentzia baten proposamena azalduko den arren, saioetan erabiltzeko material ezberdinak (portfolioak, galderen fitxak...) eranskinen atalean txertatu dira.

### 3.1. 1-2 ikasmailetarako arazo egoera eta saioak

#### 3.1.1. Arazo egoera



Izenburua
Herrian eta inguruetan zehar bidaiatzen
Ikasmailak
LH. 1-2
Arloak/irakasgaiak
Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura
Testuingurua
Ikasle asko herri berean bizi dira txiki-txikitatik. Hala ere, sarri, zailtasun handiak omen dituztenez mapak ulertzeko eta hauen buru eskema egiteko, ez dira gai herriko auzo banaketa kontrolatzeko. Kultura ondare elementuak herriko auzo ezberdinetan sakabanaturik dauden interes puntu garrantzitsuak direnez, baliabide egokia izan daitezke herriko mapa lantzen hasteko. Baita inguruak hobeto ezagutzeko ere.
Arazoa
Herrian jolastu, herrian ikasi, herrian lo... herrian bizi gara, alegia. Gure lagunak ere herrian bizi dira, baina gugandik urruti maiz. Herri berean bizi garela diogu, baina benetan al dakigu non bizi garen?
Xedea
Elkarrekin lan eginez, zeregin ezberdinak era autonomoan burutzeko gaitasunak garatzea.
Helburuak
- Lan autonomoan trebatzea.

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herria eta inguruak ezagutzea.</li> <li>- Mapak erabiltzea eta interpretatzea.</li> <li>- Kultura ondarea balioetsi.</li> <li>- Idatzizko eta ahozko komunikazioan trebatzea.</li> <li>- Inguruko euskara aldaera ezberdinak identifikatzea.</li> </ul>
<b>Ataza</b>
Ikasleek Busturiko mapa politiko, fisiko eta linguistikoa sortuko dute.
<b>Jarduerak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arazoa ezagutuz</li> <li>- Lanean hasi</li> <li>- Herria ezagutuz</li> <li>- Herria hobeto ezagutuz</li> <li>- Euskara ezberdinak?</li> <li>- Bai, ezberdinak</li> <li>- Landutako guztia batuz</li> </ul>

### 3.1.2. Saioak

1. Saioa: Arazoa ezagutuz		
<b>Ikasgaiak</b>	Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura	
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arazoa ezagutu</li> <li>- Estrategia zehaztu</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- San Mames lantegia</li> <li>- Lanaren planifikazioa</li> </ul>	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzea</b>	<b>Materiala</b>
50´	Talde handian 4-5 kideko taldeak Banaka	Koloretako papertxoak <i>1. Portfolioa</i>
Garapena		
<p>Gelara sartzean, irakasleak San Mames lantegian ekoitzi ziren lanen irudiak erakutsiko dizkie arbel digitalean, baina ez du esango non sortu ziren. Jarraian, ikasleek galdetuko die irudi horietako lanak non sortu ziren dakiten edo ez. Ikasleek beraien usteak aurkeztu ostean, irakasleak galdera hori ebaztera animatuko ditu ikasleak. Baita, hori lortzeko estrategia edo pausoak finkatzera ere.</p> <p>Estrategia hori finkatzeko, irakasleak aurretik ikasgelan zehar sakabanatutako koloretako papertxoak bilatu beharko dituzte talde txikietan. Kolore ezberdinetako papertxo horietan, arazoa ebazteko fase ezberdinen izenak egongo dira idatzirik: Galdera irakurri eta ulertu; arazoa identifikatu; informazio iturriak identifikatu; Informazioa bildu eta ulertu; galdera erantzun; erantzuna ondo dagoen begiratu. Behin aurkiturik, talde bakoitzak fase horiek ordenatu beharko ditu, gainerako ikaskideei beraien bidea aurkezteko. Bukatzeko, guztien lanak entzun ondoren, fase ordena egokiena osatuko dute guztien artean.</p> <p>Portfolioa bete.</p>		
Ebaluazio Irizpideak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da, lan prozesu baten oinarrizko sekuentziak ezberdintzeko.</li> <li>- Lantegiarekiko jarrera egokia erakusten du.</li> </ul>		

2. Saioa: Lanean hasi		
<b>Ikasgaiak</b>	Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura	
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazio bilaketan trebatzea</li> <li>- San Mames fabrika sakontzea</li> <li>- Idatzizko eta ahozko komunikazioaren ulermena lantzea</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazioaren bilaketa</li> <li>- San Mames fabrika</li> <li>- Ahozko komunikazioaren ulermena</li> <li>- Idatzizko komunikazioaren ulermena</li> </ul>	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzea</b>	<b>Materiala</b>
90´	Talde handian 4-5 kideko taldeak Banaka	2. <i>Laburpena</i> 3. <i>Fitxa</i> Portfolioa
Garapena		
<p>Aurreko egunean egindako lana gogoratu ostean, San Mamesen inguruko laburpen txikia irakurriko dute talde txikietan. Istorio horretan, alde batetik, lantegiak herritik eta inguruetatik sakabanatutako azpiegitura ezberdinak zituela azalduko da. Bestetik, langileak toki ezberdinetatik zetozela ere azalduko da. Hortik abiatuz, bi ikerketa lerro zabalduko dituzten bi galdera azalduko zaizkie testuan: Ba al dakizue non zeuden errota eta eraikin hauek?; Hizkuntza berean hitz egingo al zuten langile guztiek?</p> <p>Jarraian, informazio hori non bilatu pentsatuko dute guztien artean: liburuetan begiraturaz, interneten (irakasleak bilatuko luke, ikasleek zer bilatu esanez), etxean/beste irakasleei galdetuz...</p> <p>Bukatzeke, talde txikietan, eskolako liburutegira edo irakasle gelara joango dira, bertako liburuetan bilatzeko zein irakasle ezberdinei galdetzeko. Lortutako informazioa, fitxa baten idatzi beharko dute. Nahi izanez gero, etxera eraman dezakete fitxa, etxekoengandik ere informazioa jasotzeko.</p> <p>Portfolioa bete.</p>		
Ebaluazio Irizpideak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Badaki informazio iturri ezberdinak identifikatzen.</li> <li>- Gai da informazio iturri ezberdinak kontsultatzen.</li> <li>- Idatzizko testuetatik jasotako informazioa ulertzen du.</li> <li>- Ahozko iturrietatik jasotako informazioa ulertzen du.</li> <li>- Era egokian adierazten du jasotako informazioa.</li> <li>- Lantegiaren potentzialtasuna identifikatzen du.</li> </ul>		

3. Saioa: Herria ezagutzuz	
<b>Ikasgaiak</b>	Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herriko auzoak ezagutu</li> <li>- Inguruko herriak ezagutu</li> <li>- Mapak erabiltzea</li> <li>- Ahozko komunikazioan trebatzea</li> </ul>
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herriko auzoen kokapena</li> <li>- Inguruko herrien ezagupena</li> <li>- Mapen interpretazioa</li> <li>- Idatzizko informazioaren trataera</li> <li>- Ideien ahozko adierazpena</li> </ul>

Denbora	Taldekatzea	Materiala
90'	Talde handian 4-5 kideko taldeak Banaka	A3 folioak 4. Aurkezpenetako ebaluazio fitxa
Garapena		
<p>Hasteko, aurreko saioko taldeetan batuko dira eta bakoitzak 1-5 bitarteko zenbakia aukeratuko du. Jarraian, ikasgela 5 txokotan banatuko da, eta bakoitzari zenbaki bat esleituko zaio. Ikasleak horrenbestez, aukeratu duten zenbaki bereko txokora mugituko dira. Bertan, aurreko saioan, edota etxean, batutako informazioa partekatuko dute. Bukatzean, jatorrizko taldeetara bueltatu eta informazio guztiarekin, galderak erantzungo dituzte berriz ere.</p> <p>Jarraian, lehen ikerketa lerroa zehazten duen galderarekin (Ba al dakizue non zeuden errota eta eraikin hauek?) lotutako erantzunetan oinarrituz, herriko mapa marrazteko eta azpiegitura horiek dagozkien tokian kokatzeko eskatuko zaie. Era berean, mugakide diren herrien izenak ere kokatu beharko dituzte. Lana errazteko, gelan edo liburutegian dauden mapez baliatu daitezke.</p> <p>Gero, talde bakoitzak bere lana aurkeztuko du, entzuleek ebaluazio fitxa betetzen duten bitartean. Aurkezpen bakoitzaren ostean, feedbacka jasoko da bai ikaskideengandik eta bai irakaslearengandik ere.</p> <p>Portfolioa bete.</p>		
Ebaluazio Irizpideak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herriko auzoak ezagutzen ditu.</li> <li>- Badaki mapa bateko oinarrizko informazioa erabiltzen.</li> <li>- Gai da, herriko auzoak era logikoan antolatzen.</li> <li>- Era egokian espresatzen ditu bere ideiak.</li> </ul>		

4. Saioa: Herria hobeto ezagutz		
<b>Ikasgaiak</b>	Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura	
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herriko paisaia eratzten duten elementu nagusiak ezagutzea</li> <li>- Mapak interpretatzea</li> <li>- Ahozko komunikazioan trebatzea</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mendiak, basoak, errekek eta ibaiak</li> <li>- Mapen interpretazioa</li> <li>- Landutakoaren azalpena</li> </ul>	
Denbora	Taldekatzea	Materiala
90'	4-5 kideko taldeak Banaka	Portfolioa 5. Galdera fitxa
Garapena		
<p>Saioa hasteko, talde txikietan batuko dira ikasleak. Ikasle bakoitzak, "erreka, basoa, mendia edo ibaia" gaia aukeratu beharko du. Behin aukeratzean, taldekatze berriak sortuko dira, gaika antolaturik. Aditu talde hauetako bakoitzak, fitxa bana bete beharko du. Bertan, aukeratutako gaien inguruko galderak agertuko zaizkie. Informazioa bilatzeko, gelako edota liburutegiko liburu zein mapa ezberdinetan bilatu beharko dute irakaslearen laguntzaz.</p> <p>Behin galderak erantzunda, jatorrizko taldeetara bueltatuko dira lortutako informazioa partekatzeko eta eskuratutako informazioarekin eskema bat sortzeko.</p>		

Bukatzeko, aurreko egunean sortutako mapa hartu eta herrian dauden erreka, mendi, ibai eta baso nagusiak margotuko dituzte bertan. Baita, horietako bakoitzaren izena idatzi ere.

Portfolioa bete.

### Ebaluazio Irizpideak

- Herriko paisaia naturaleko elementu nagusiak identifikatzen ditu.
- Badaki herriko baso, mendi, ibai eta erreka nagusiak kokatzen.
- Mapetatik informazioa eskuratzeko gai da.
- Ez du zailtasun nabaririk erakusten ahozko azalpenak ematean.
- Gai da bere ideiak eraginkortasunez adierazteko.

## 5. Saioa: Euskara ezberdinak?

<b>Ikasgaiak</b>	Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura	
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntza aldaera daudela ezagutzea</li> <li>- Ideiak ekintza bihurtzea</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskara aldaeren ezagupena</li> <li>- Ideien planifikazioa</li> </ul>	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzea</b>	<b>Materiala</b>
90´	Talde handian 4-5 kideko taldeak Banaka	Portfolioa
<b>Garapena</b>		
<p>Saioari hasiera emateko, bigarren ikerketa lerroarekin (Hizkuntza berean hitz egingo al zuten langile guztiek?) hasiko direla azalduko du irakasleak. Horretarako, galdera berreskuratu eta horren inguruan hitz egingo dute bakoitzak bere iritzia aurkeztuz. Seguraski, bakoitzak hitz egiteko era ezberdina zeukala aipatuko dute (horrela izan ezean, irakasleak elkarrizketa bideratu beharko luke gai hori aipatu arte). Behin gaia aipatuta, eskolan ere antzeko ezer gertatzen den galdetuko die irakasleak. Gero, hori ikertzera animatuko ditu ikasleak.</p> <p>Lan horri ekiteko, lehenik, irakasleak azalduko du eskolan bertan, lantegian bezala, herri ezberdinetako langileak daudela eta hizkera ere nahiko ezberdina izan daitekeela kasu batzuetan. Horrenbestez, saio honetan hizkuntza ikertzaileak bilakatuko dira eta irakasle ezberdinen laguntza beharko dute hizkera mota ezberdinak ezagutzeko. Bigarren, langile ezberdinei galdetzeko interesgarriak deritzen 2-3 galdera pentsatuko dituzte talde txikietan. Hala nola, non bizi den, non jaio zen, zein euskalkitan mintzatzen den... Jarraian, 4 galdera aukeratuko dituzte guztien artean. Gero, aukeratutako galderekin fitxa bat sortuko dute guztien artean, jasoko dituzten erantzun ezberdinak idazteko.</p> <p>Bukatzeko, ikerketarako informazioa batuko dute. Hots, talde txikietan, irakasle ezberdinengana hurbilduko dira aurretik sortutako galderak egiteko eta erantzunak batzeko. Era berean, irakasleekin aurretik hitz egin bada, aproposena litzateke erantzunen audiozko grabazioak egitea, gero ikasgelan entzuteko.</p>		
Portfolioa bete.		
<b>Ebaluazio Irizpideak</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskara mota ezberdinak badirela daki.</li> <li>- Euskara aldaerak identifikatzeko gai da.</li> <li>- Errespetua erakusten du hizkuntza aldaera ezberdinen aurrean.</li> <li>- Gai da, lortu nahi duen helburuarekin lotutako galderak planteatzeko.</li> </ul>		




6. Saioa: Bai, ezberdinak		
<b>Ikasgaiak</b>	Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura	
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Inguruko mintzaerak ezagutzea</li> <li>- Ahozko komunikazioaren ulermenean trebatzea</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskara aldaeren ezagupena</li> <li>- Euskara aldaeren identifikazioa</li> </ul>	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzeta</b>	<b>Materiala</b>
90´	Talde handian 4-5 kideko taldeak Banaka	Portfolioa
Garapena		
<p>Aurreko saioan irakasleek emandako erantzunetan oinarrituz, ondorioak aterako dituzte guztien artean eta irakaslearen gidaritzapean. Hala nola, herri batzuetan hitz ezberdinak erabiltzen direla, intonazioan ere ezberdintasunak daudela, herri batzuetan hitz amaiera ezberdinak erabiltzen direla...</p> <p>Behin, herri ezberdinetako hizkeraren alde nabariak identifikaturik, taldeka, aurreko saioetan sortutako mapa berreskuratu eta bertan idatziko dituzte azken ikerketa honetan ateratako ondorioak.</p> <p>Portfolioa bete</p>		
Ebaluazio Irizpideak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Badaki, hizkuntza bera izan arren, aldaera ezberdinak daudela.</li> <li>- Hizkuntza aldaera ezberdinak ulertzen ditu.</li> <li>- Gai da, hizkuntza aldaerak ezberdintzeko ezaugarri nagusiak identifikatzeko.</li> </ul>		

7. Saioa: Landutako guztia batuz		
<b>Ikasgaiak</b>	Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura	
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahozko komunikazioa lantzea</li> <li>- Lana ebaluatzea</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eginikoaren ahozko aurkezpena</li> <li>- Eginiko produktuen ebaluazioa</li> </ul>	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzeta</b>	<b>Materiala</b>
90´	Talde handian 4-5 kideko taldeak Banaka	Portfolioa Paperezko oihal handia Margoak, guraizeak...
Garapena		
<p>Lehenengo 30 bat minutuetan talde txiki bakoitzak saio guzti hauetan eginiko lanaren aurkezpen txiki bat prestatuko du. Era berean, "zer ikasi dugu?", "zertarako balio du ikasi dugunak?" eta "baliagarria izan al da San Mames lantegia?" galderei erantzun beharko diete. Aurkezpenak egin ostean, egindako lan bakoitzaren indar-guneak aipatuko dituzte.</p> <p>Hori eginik, mapa politiko/fisiko/linguistikoa erraldoia sortuko dute guztien artean, ikasitako guztia erakusteko. Halaber, ikasle bakoitzak bere etxea marraztuko du dagokion tokian.</p> <p>Portfolioa bete.</p>		

Ebaluazio Irizpideak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da, ikasi duenaren zentzua identifikatzeko.</li> <li>- Badaki bere lanaren zein gainerako lanen indarguneak identifikatzen.</li> <li>- Gai da, lan ezberdinetatik abiatuz, lan bakarra sortzeko.</li> <li>- Ondo defendatzen da taldearen zein bere ideiak aurkeztean.</li> </ul>

### 3.2. 3-4 ikasmailetarako arazo egoera eta saioak

#### 3.2.1. Arazo egoera



Izenburua
Inguruko beharrak asetzen
Ikasmilak
LH. 3-4
Arloak/irakasgaiak
Gizarte Zientziak, Euskara eta Literatura, Matematika eta Arte Hezkuntza
Testuingurua
<p>Gizartea etengabe ari da aldatzen. Aro bakoitzak, jendarteko beharrekin bat egiten duen sektore ekonomikoaren garapen ezberdina dauka. Garai jakin bakoitzean, beraz, sektore ekonomikoaren bilakaera ezberdina da. Horrenbestez, ogibideak ere aldatzen doaz urteen joanarekin. San Mames fabrika, baliabide eraginkorra izan daiteke, XIX. mende hartako produkzio jardueretatik hasita, gaur egungo produkzio jarduerak ezagutzeko.</p>
Arazoa
<p>Badakigu zertan lan egiten duten gure gurasoek. Baita, galdetuz gero, gure aitita-amamek. Baina zertan aritu ziren gure arbasoak ia 200 urte? Eta nola jakin dezakegu zein lan motatan arituko garen gu?</p>
Xedea
Inguruko beharrak identifikatzea eta horiek asetzeko produktu/zerbitzuak sortzea.
Helburuak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Produkzio jarduerak eta sektore ekonomikoak ezagutzea eta bereiztea.</li> <li>- Informazioa modu gidatuan antolatzea, bilatzea eta berrikustea.</li> <li>- Mota ezberdinetako testuak ulertzea eta ekoiztea.</li> <li>- Eragiketa ezberdinetan trebatzea.</li> </ul>

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Obrak sortzea norbere ideiak adierazteko.</li> <li>- Norbere zein besteen obrak balioestea.</li> </ul>
<b>Ataza</b>
Ikasle talde bakoitzak, behar edo interes bat antzeman beharko du eta hori asetzeko produktua, zerbitzua... asmatu eta sortu beharko du. Gero, ikaskideen aurrean aurkeztuko dena.
<b>Jarduerak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arazoa ezagutuz</li> <li>- San Mames lantegia</li> <li>- Jarduera ekonomikoak</li> <li>- Behar bat identifikatzen</li> <li>- Beharra asetzen</li> <li>- Iragarkia</li> <li>- Produktua saltzen</li> </ul>

### 3.2.2. Saioak

1. Saioa: Arazoa ezagutuz		
<b>Ikasgaiak</b>	Gizarte Zientziak, Euskara eta Literatura, Matematika eta Arte Hezkuntza	
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arazoa ezagutu</li> <li>- San Mames ezagutu</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- San Mames lantegia</li> </ul>	
Denbora	Taldekatzeara	Materiala
50´	Talde handian 4-5 kideko taldeak Banaka	1. <i>Portfolioa</i> <a href="#">Bideoa</a> 2. <i>Fitxa</i>
Garapena		
<p>Gelara sartzean, irakasleak nagusitan zein lanbideetan aritzea gustatuko litzaikeen galdetuko die ikasleei. Jarraian, beraien gurasoak zertan lan egiten duten galdetuko die, nahi duenak esan dezan. Gero, aitita-amamen lanbideaz galdetuko die. Gutxi batzuek baino ez dute erantzuna jakingo. Bukatzeko, duela ia 200 urte beraien arbasoen ogibidea zein izan zitekeen pentsatzeko eskatuko zaie. Denetarik erantzunak esan ditzakete, baina ez dute ziurtasunez jakingo. Honen aurrean, irakasleak "ezagutzen al duzue garai hartako produkzio jardueren lekuko den lantegirik herrian?" galdera pizgarria proposatuko du. Hau eginik, elkarriketa bideratuko du, ikasleek San Mames lantegia aipatzen duten arte.</p> <p>Orduan, Busturiko Udalak lantegiaren inguruan eginiko bideoa jarriko du. Ikusi bitartean, fitxako galderak erantzuten saiatu beharko dira. Galdera horietako batzuk, bideoan jasotako informazioaren bitartez erantzun ditzakete. Beste batzuk ordea, ez.</p> <p>Portfolioa bete.</p>		
Ebaluazio Irizpideak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da, ahozko testuetatik jasotako informazio ulertzeko.</li> <li>- Lantegiarekiko jarrera egokia erakusten du.</li> </ul>		

2. Saioa: San Mames lantegia		
<b>Ikasgaiak</b>	Gizarte Zientziak, Euskara eta Literatura, Matematika eta Arte Hezkuntza -	
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazio iturriak identifikatu</li> <li>- Sektore ekonomikoak ezagutu</li> <li>- Produkzio jarduerak ezagutu</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sektore ekonomikoak</li> <li>- Produkzio jarduerak</li> </ul>	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzea</b>	<b>Materiala</b>
90'	Talde handian 4-5 kideko taldeak Banaka	Portfolioa 2. Fitxa
Garapena		
<p>Aurreko saioko fitxa berreskuratu eta erantzun gabe geratu ziren galderak irakurriko dituzte guztien artean. Jarraian, galdera horiek erantzuteko informazioa non bilatu dezaketen pentsatuko dute talde txikietan. Gero, guztien artean komentatuko dute amankomunean jartzeko.</p> <p>Behin informazio iturriak identifikatuta, talde bakoitzak informazioa bilatzeari ekingo dio. Lortutako informazioarekin, galdera horiek erantzungo dituzte, gero amankomunean jartzeko guztien artean.</p> <p>Behin erantzun guztiak uztarturik eta talde bakoitzak dagozkion zuzenketak eginik, eskema bana sortuko dute informazioa laburtzeko.</p> <p>Portfolioa bete.</p>		
Ebaluazio Irizpideak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da, informazio iturri ezberdinak identifikatzeko</li> <li>- Aurkitutako informazioa ulertzen du.</li> <li>- Badaki bilatutako informazioa antolatzen.</li> <li>- Sektore ekonomiko ezberdinak ezagutzen ditu.</li> <li>- Badaki sektore ekonomiko bakoitzeko produkzio jarduera nagusienak identifikatzen.</li> </ul>		

3. Saioa: Jarduera ekonomikoak		
<b>Ikasgaiak</b>	Gizarte Zientziak, Euskara eta Literatura, Matematika eta Arte Hezkuntza -	
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Produktu mota ezberdinak identifikatzea</li> <li>- Informazioa antolatzea</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lehengaiak eta produktu landuak</li> <li>- Artisautza eta industria</li> <li>- Informazioaren kudeaketa</li> </ul>	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzea</b>	<b>Materiala</b>
90'	Talde handian 4-5 kideko taldeak Banaka	Portfolioa 3. Irudiak 4. Taula A3 orriak Margoak...
Garapena		

Hasteko, San Mameseko produktuak landuak ala landugabeak ziren galdetuko du irakasleak. Ikasleek horren inguruan hitz egingo dute erantzuna bilatzeko. Jarraian, irakasleak hainbat produkturen irudiak aurkeztuko ditu, eta ikasle taldeek emandako taula jarraituz sailkatu beharko dituzte. Informazio gehiago bilatu beharko balute, ordenagailua, eskolako liburuak edota testu liburuak erabiliko lituzkete. Gero, guztien artean jarriko dituzte amankomunean.

Jarraian, talde bakoitzak A3 tamainako mural txiki bat egingo du lehengaien, produktu landuen, artisautza produktuen eta produktu industrialen inguruan ikasitakoa laburbiltzeko.

Portfolioa bete.

#### Ebaluazio Irizpideak

- Badaki produktu mota ezberdinak bereizten.
- Badaki produktu mota bakoitza, dagozkion jarduera ekonomikoa eta sektore ekonomikoarekin lotzen
- Eskuratutako informazioa ulertzen du.
- Gai da, jasotako informazioa era logikoan antolatuzeko.

#### 4. Saioa: Behar bat identifikatzen

<b>Ikasgaiak</b>	Gizarte Zientziak, Euskara eta Literatura, Matematika eta Arte Hezkuntza	
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eragiketa ezberdinetan trebatzea</li> <li>- Produkzio jarduerak ezagutzea</li> <li>- Proiektuak planifikatzea</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gehiketak, kenketak, biderketak eta zatiketak</li> <li>- Produkzio jardueren ezagupena</li> <li>- Produktu motak eta zerbitzuak</li> <li>Zereginen planifikazioa</li> </ul>	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzeara</b>	<b>Materiala</b>
90´	4-5 kideko taldeak Bikoteka Banaka	Portfolioa 5. Planifikazio fitxa 6. Prezio fitxa
<b>Garapena</b>		
<p>Irakasleak, San Mames lantegia zertarako sortu zuten galdera berreskuratzeko eskatuko du eta horren inguruan arituko dira hitz egiten. Alde batetik, erantzuna gogoratzeko, eta bestetik, enpresaren sorreraren arrazoia, inguruko behar bat asetzeko izan zela ohartzeko. Hortik abiatuz, ikasleei azken produktua aurkeztuko zaie. Hots, produktu edo zerbitzu bat asmatu eta sortu beharko dutela, inguruko behar bat asetzeko.</p> <p>Honi ekiteko, lehenik banaka erantzungo dute planifikazio fitxa. Gero, binaka batu eta ideiak uztartuko dituzte. Azkenik, beste bikote batekin elkartzeko eta azken produktu/zerbitzua aukeratzeko.</p> <p>Portfolioa bete.</p>		
<b>Ebaluazio Irizpideak</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Produktu edo zerbitzu bakoitzak asebate ditzakeen behar nagusiak ezagutzen ditu.</li> <li>- Gai da, testuingurua erreparatuz, behar edo interes bat identifikatzeko.</li> <li>- Badaki oinarrizko eragiketak egiten.</li> <li>- Gai da proiektu txikiak planifikatzeko.</li> </ul>		

5. Saioa: Beharra asetzen		
<b>Ikasgaiak</b>	Gizarte Zientziak, Euskara eta Literatura, Matematika eta Arte Hezkuntza	
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eragiketa ezberdinetan trebatzea</li> <li>- Elementu plastikoak sortzea nahiak adierazteko</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gehiketak, kenketak, biderketak eta zatiketak</li> <li>- Obra plastikoen eraketa</li> </ul>	
Denbora	Taldekatzea	Materiala
90'	4-5 kideko taldeak Banaka	Portfolioa Planifikazio fitxa Prezio fitxa Orotariko materiala (kartoia, kartulina, guraizeak, zinta itsaskorra, margoak...)
Garapena		
<p>Aurreko saioan fitxa betetzen bukatu ez zuten taldeek, hori bukatuko dute lehenengo.</p> <p>Behin fitxa beteta, aurreikusitako materiala hartu eta produktu/zerbitzua sortzen hasiko dira (material gehiago behar izanez gero, aurrekontuko prezioan idatzi beharko dute hartutako materiala eta bere prezioa. Era berean, behar izan dutena baino material gehiago aurreikusi bada, aurrekontutik kendu beharko da).</p> <p>Portfolioa bete.</p> <p>*zerbitzua sortzea erabakiz gero, ludoteka bat adibidez, ludotekako eraikina/gela sortu beharko dute.</p>		
Ebaluazio Irizpideak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Badaki oinarrizko eragiketak egiten.</li> <li>- Eraginkortasunez plasmatzen ditu bere ideiak obra plastikoetan.</li> </ul>		

6. Saioa: Iragarkia		
<b>Ikasgaiak</b>	Gizarte Zientziak, Euskara eta Literatura, Matematika eta Arte Hezkuntza	
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iragarkiak ulertzea eta ekoiztea</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iragarkien ezaugarrien identifikazioa</li> <li>- Iragarkien ekoizpena</li> </ul>	
Denbora	Taldekatzea	Materiala
90'	Talde handian 4-5 kideko taldeak Banaka	Portfolioa Margoak... A3 kartulinak Aldizkaria 7. Fitxa
Garapena		
<p>Hasieran, aurreko saioan hasitako zeregina bukatzeko denbora izango dute.</p>		

Gero, hurrengo zereginarekin hasiko dira. Hots, sortutako produktu/zerbitzua saltzeko iragarkia sortu beharko dute. Hau egin baino lehen, iragarkien elementu eta ezaugarri nagusiak identifikatu beharko dituzte. Horretarako, irakasleak aldizkari bat eramango du ikasgelara. Ikasle taldeek iragarki bana aukeratu eta fitxa bete beharko dute. Bukatzean, galderen erantzunen inguruan hitz egingo dute guztien artean, iragarkien ezaugarri nagusiak ondorioztatzeko.

Ostean, taldeka, iragarki bana sortu beharko dute beraien produktua gainerako ikasleei aurkezteko eta "saltzeko".

Portfolioa bete.

### Ebaluazio Irizpideak


- Badaki iragarkiak bestelako testuengandik bereizten.
- Gai da, iragarkien ezaugarri nagusiak identifikatzeko.
- Gai da, iragarkiak sortzeko testu mota honen ezaugarriak errespetatuz.

## 7. Saioa: Produktua saltzen

<b>Ikasgaiak</b>	Gizarte Zientziak, Euskara eta Literatura, Matematika eta Arte Hezkuntza	
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norbere zein besteen lanak errespetatzea</li> <li>- Norbere ideiak eta lanak adieraztea</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberak egindako zein kideek egindako lanen balioespena</li> <li>- Ideien eta lanen aurkezpena</li> </ul>	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzeta</b>	<b>Materiala</b>
90´	Talde handian 4-5 kideko taldeak Banaka	Portfolioa
<b>Garapena</b>		
<p>Hasierako 20 minutuak, iragarkia bukatzeko utziko dira.</p> <p>Gero, produktua saltzeko aurkezpena prestatu beharko dute. Produktua saltzeaz gain, prozesuan izan dituzten zailtasunak, nola konpondu dituzten eta hobetu beharrekoak azaldu beharko dituzte.</p> <p>Azkenik, talde bakoitzak eginiko azken produktuak (produktua/ zerbitzua eta iragarkia) aurkeztuko dira. Aurkezpen bakoitzaren ostean, ikusitako lanaren balorazioa egiteko eskatuko zaio talde bati.</p> <p>Potrfolioa bete.</p>		
<b>Ebaluazio Irizpideak</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da, eginiko lana ebaluatzeko.</li> <li>- Besteen lanekiko errespetuzko jarrera erakusten du.</li> <li>- Eraginkortasunez adierazten ditu bere ideiak.</li> </ul>		

### 3.3. 5-6 ikasmailetarako arazo egoera eta saiok

#### 3.3.1 Arazo egoera



<b>Izenburua</b>
Atzera begirada, aurrekoa ulertzeko
<b>Ikasmailak</b>
LH. 5-6
<b>Arloak/irakasgaiak</b>
Gizarte Zientziak, Balio Sozial eta Zibikoak eta Arte Hezkuntza
<b>Testuingurua</b>
Gizarte eta kultura oro, etengabe aldatzen ari da. Era beran, iraganeko gertakarien emaitza gisa har daitezke, ezin baitira ulertu, aurretik jazotako gertaerak ezagutu eta ulertu gabe. Horrenbestez, gure kultura osatzen duten ohitura, bizimodu, balio sistema, oinarritzko eskubide... bereizgarrien zergatia ulertu nahi bada, ezinbestekoa da atzera begiratzea eta garai ezberdinetara jotzea gizarte jakin ezberdinetako ezaugarriak alderatzeko eta horien garapenez hausnartzeko. Zeregin honetarako, kultura ondareaz baliu gaitzke. Hauen bitartez, garai jakin bateko esparru anitzetako informazioa interpreta daitekeelako. Kultura ondarea beraz, egungo errealitatea ulertzeko eta bere inguruan hausnartzeko baliabide egokitzat har daiteke.
<b>Arazoa</b>
Azken mendeetako eta egungo gizartearen arteko ezberdintasun zein antzekotasunen inguruko erakusketa antolatzeke proposamena luzatu digute. Nola ekingo diogu lanari? Zein elementu har dezakegu erreferentzia gisa? Zein bide jarraituko dugu? Zein arlo aztertuko ditugu?
<b>Xedea</b>
Gizartea osatzen duten ezaugarri ezberdinen jatorria ezagutzea, ulertzea eta hauen analisi kritikoa egitea.
<b>Helburuak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iturri eta mota ezberdinetako informazioa ulertzea, sailkatzea eta adieraztea.</li> <li>- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, gauzatzea eta ebaluatzea.</li> <li>- Gizarteko arlo ezberdinen bilakaera ezagutzea.</li> <li>- Lan baldintzak eta giza zein haurren eskubideak ezagutzea.</li> <li>- Arte ekoizpenak ezagutzea eta ulertzea.</li> <li>- Arte ekoizpen plastikoaren erreproduzioak ekoiztea.</li> </ul>



- Kultura ondarea balioestea.		
<b>Ataza</b>		
Erakusketa antolatuko dute. Bertan, proposatutako arazoa argitu nahian lortu duten informazioa aurkeztuz. Hots, azken mendeetako gizarteetako eta gaur egungo jendarteko elementu bereizgarrien arteko konparazioak eginez.		
<b>Jarduerak</b>		
<b>Gizarte Zientziak</b>	<b>Balio Sozial eta Zibikoak</b>	<b>Arte Hezkuntza</b>
Arazo egoeraren aurkezpena	Giza eskubideak	San Mames lantegian sakonduz
Informazioa bilatzen	Dramatizazioa	Lantegiko lanak interpretatuz
Jasotako informazioa taldearekin partekatzen	Giza eskubideen bilakaera	Lantegiko lana birsortuz
Garai ezberdinak alderatuz	Giza eskubideen bilakaera aurkezten	Birsorkuntza apainduz
Erakusketa sortu		
Ebaluazioa		

### 3.3.2. Saioak

#### 3.3.2.1. Gizarte Zientziak

<b>1. Saioa: Arazo egoeraren aurkezpena</b>		
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arazo ezagutzea</li> <li>- Arazo konpontzeko estrategia zehaztea</li> <li>- Helburuak definitzea</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proiektuen planifikazioa</li> </ul>	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzeta</b>	<b>Materiala</b>
50'	Talde handian 4-5 kideko taldeak Bakarka	<a href="#">Irudiak</a> 1. portfolioa
<b>Garapena</b>		
<p>Gelara sartzean, irakasleak San Mames fabrikako hainbat lanen irudiak erakutsiko ditu. Jarraian, hainbat galdera luzatuko dizkie: zer dira? Non sortu ote ziren? Zein garaitan erabiltzen zituzten halako elementuak? Gaur egun ere honelakoak erabiltzen al ditugu? Zergatik? Gizartean zer beste gauza aldatu da?... Ostean, alaketak jaso dituzten bizimodu, ohitura, janzkera, joko eta jolasen... inguruko erakusketa antolatzea ideia bikaina izan zitekeela aipatuko du. Baita, erronka horri egiten animatzen diren galdetuko ere.</p> <p>Talde txikiagoetan banatuko dira eta talde bakoitzak arazoa ebazteko estrategia pentsatuko du. Ostean, erakusketarako arlo interesgarriak identifikatuko dituzte (janzkera, elikadura, ogibideak, jolas eta jokoak...). Bukatzean, talde bakoitzak bere estrategia eta interes puntuak azalduko ditu ikaskideen aurrean. Azkenik, bai irakasleak bai ikasleek feedbacka emango dute eta interes puntuak guztien artean amankomunean jarriko dituzte.</p>		

Portfolioa bete.
<b>Ebaluazio Irizpideak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da arazoa ebazteko bidea edo estrategia definitzeko.</li> <li>- Badaki informazioa lortzeko iturri ezberdinak identifikatzen.</li> <li>- Badaki gaiarekin lotutako arlo ezberdinak zehazten.</li> </ul>

2. Saioa: informazioa bilatzen		
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antzinako bizimoduak, janzkerak, elikadura... ezagutzea</li> <li>- Informazio iturriak aukeratzea</li> <li>- Informazioa ebaluatzea eta birmoldatzea</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ohituren, janzkeren, elikaduraren... ezagupena</li> <li>- Informazio iturrien erabilera</li> <li>- Informazioaren ebaluazioa</li> <li>- Informazioaren ulermena</li> </ul>	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzea</b>	<b>Materiala</b>
50´	4-5 kideko taldeak Banaka	Portfolioa
Garapena		
<p>4-5 kideko taldeetan banatu eta aurreko saioan zehaztutako interes gune edo gaiak taldekideen artean banatuko dituzte. Jarraian, taldekatze berriak egingo dituzte gaika antolaturik. Hots, adituen taldeak osatuko dira. Talde berri hauetako bakoitzak bere gaia (janzkera adibidez) aurreko mendeetan nolakoa zen ikertzeko informazio iturri egokienak aukeratzeko dituzte: internet, liburu edota aldizkariak...</p> <p>Jarraian, talde bakoitza informazioa bilatzen hasiko da. Era berean, lortutako informazioa uztartu, ebaluatu eta ideia nagusien laburpena egingo dute.</p> <p>Portfolioa bete.</p>		
Ebaluazio Irizpideak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da, beharren arabera, informazio iturri ezberdinen artean aukeratzeko.</li> <li>- Aurkitutako informazioa ulertzen du.</li> <li>- Ideia nagusiak identifikatzeko gaitasuna dauka.</li> <li>- Jasotako informazioa bere hitzekin laburtzeko gai da.</li> </ul>		

3. Saioa: Jasotako informazioa taldearekin partekatzen		
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldekideen artean partekatu</li> <li>- Informazioa antolatu</li> <li>- Lana ebaluatu</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanaren azalpena</li> <li>- Informazioaren berregitea</li> <li>- Lanaren ebaluazioa</li> </ul>	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzea</b>	<b>Materiala</b>
50´	4-5 kideko taldeak Banaka	Portfolioa
Garapena		
<p>Aurreko saioan bezala, informazioa bilatzen eta ideia nagusien laburpena egiten jarraituko dute.</p>		

<p>Bukatzean, jatorrizko taldeetara bueltatu eta kide bakoitzak, lortutako informazioa azalduko die taldekideei. Gero, eskuratutako informazio guztiaren eskema osatuko dute.</p> <p>Bukatzean, talde bakoitzak sortutako eskema azalduko du gainerako ikaskideen aurrean. Jarraian, eskema bateratu bat osatuko dute guztien artean.</p> <p>Portfolioa bete.</p>
<b>Ebaluazio Irizpideak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da, ideia nagusiak identifikatzeko.</li> <li>- Era egokian adierazten ditu bere ideiak.</li> <li>- Badaki bere lana ebaluatzen eta beharrezkoa bada, hura hobetzen.</li> </ul>

4. Saioa: Garai ezberdinak alderatuz		
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ohituren, janzkeren, elikaduraren... bilakaera ezagutzea</li> <li>- Informazioa konparatzea</li> <li>- Informazioa ebaluatzea</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ohituren, janzkeren, elikaduraren... bilakaera</li> <li>- Eginiko lanaren ebaluazioa</li> </ul>	
Denbora	Taldekatzera	Materiala
50´	Talde handian 4-5 kideko taldeak Banaka	Portfolioa Kartulinak, margoak...
Garapena		
<p>Saio honetan, landutako gai ezberdinek jaso duten bilakaera aztertu beharko dute. Horretarako, momentura arte bilatutako informazioaz gain, gaur egun janzkera, ohiturak... nolakoak diren ikertuko dute. Era berean, aldaketa horien arrazoiak ondorioztatzen saiatu beharko dira, informazio ezberdina bilatuz.</p> <p>Jarraian, lortutako ondorio horiek partekatuko dituzte guztien artean, amankomunean jartzeko eta egokienak zeintzuk diren eztabaidatzeko.</p> <p>Talde txikietara bueltatuz, talde bakoitzak, landutako gaien bilakaera erakusteko eta azaltzeko murala, edo egokitizat hartzen duten produktua, sortuko du.</p> <p>Portfolioa bete.</p>		
Ebaluazio Irizpideak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da, antzinako eta egungo gizarteko elementu ezberdinen garapena identifikatzeko.</li> <li>- Badaki gizarte arlo ezberdinen garapenaren atzean egon daitezkeen arrazoi nagusiak identifikatzen.</li> <li>- Gai berdinek jasandako bilakaeraren inguruko konparazioak egiteko gaitasuna dauka.</li> </ul>		

## 3.3.2.2. Balio Sozial eta zibikoak

1. Saioa: Giza eskubideak		
<b>Helburuak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- San Mames lantegia ezagutzea</li> <li>- Giza eskubideen beharra ulertzea</li> </ul>
<b>Edukiak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- San Mames lantegia</li> <li>- Giza eskubideen ezagupena</li> </ul>
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzeta</b>	<b>Materiala</b>
50´	Talde handia 4-5 kideko taldeak banaka	2. Lantegiaren gatazken testua Kartulina, margoak, artaziak... Portfolioa
Garapena		
<p>Talde txikietan banatuko dira eta irakasleak lantegiaren gatazken inguruko testua emango die taldeka irakurri dezaten. Gero, talde handian, irakurri dutenaren inguruan hitz egingo dute: zein gatazka nagusi aipatzen diren, langileek nolako egoera izango zuten, bidezkoa ote zen hainbeste lan egun izatea, langileekin hain zorrotzak izatea ondo deritzen... elkarriketa giza eskubideetara bideratzen saiatuko da.</p> <p>Behin giza eskubideen gaia azalduz, talde txikietan banatuko dira berriz ere eta eskubideen inguruko informazioa bilatzeko eskatuko zaie: noiz ezarri ziren, zeintzuk diren... eskuratutako informazioarekin, eskubideen dekalogoia osatuko dute talde guztien artean.</p> <p>Portfolioa bete.</p>		
Ebaluazio Irizpideak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da, bidezkoak ez diren jokabideak hautemateko.</li> <li>- Giza eskubideen beharra ulertzen du</li> <li>- Badaki oinarritzko giza eskubideak identifikatzen.</li> </ul>		

2. Saioa: Dramatizazioa		
<b>Helburuak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Giza eskubideen urraketak identifikatzea</li> </ul>
<b>Edukiak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Giza eskubideen identifikazioa</li> </ul>
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzeta</b>	<b>Materiala</b>
50´	4-5 taldeko kideak	Portfolioa
Garapena		
<p>Eginiko dekalogoan oinarrituta, talde bakoitzak giza eskubide bat aukeratu beharko du. Jarraian, 3-4 minutuko dramatizazio edo rol-playing txikia prestatu beharko dute. Bertan, aukeratutako eskubide horren urraketa agertu beharko da. Hau egiteko, 30 bat minutu izango dituzte.</p> <p>Jarraian, talde bakoitzak bere errepresentazioa egin beharko du eta gainerako ikaskideek, ikusitakoaren laburpena ahoz azaldu eta urratutako eskubidea identifikatu beharko dute.</p> <p>Portfolioa bete.</p>		

Ebaluazio Irizpideak	
- Gai da, egoera zehatz batzuetan giza eskubideen urraketak identifikatzeko.	

3. Saioa: Giza eskubideen bilakaera		
<b>Helburuak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Giza eskubideen bilakaera ezagutu</li> <li>- Lana ebaluatu</li> </ul>
<b>Edukiak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azken mendeetako giza eskubideen konparazioa</li> <li>- Egindako lanaren ebaluazioa</li> </ul>
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzea</b>	<b>Materiala</b>
50´	Talde handian 4-5 kideko talde txikiak Banaka	Kartulina, margoak... Portfolioa
Garapena		
<p>Dekalogotik eta bilatutako informaziotik abiatuta, azken mendeetan giza eskubideek jasandako bilakaera konparatzeko taula edo eskema sortu beharko dute. Beharrezkoa bada, informazio gehiago bilatu dezakete.. Laguntzeko, irakasleak zenbait galdera aurkeztuko dizkie: noiz ezarri ziren giza eskubideak? Nola aldatu dira urteetan zehar? Zenbat daude?...</p> <p>Portfolioa bete.</p>		
Ebaluazio Irizpideak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da, giza eskubideen bilakaera azaltzeko.</li> <li>- Gai da, eginiko lanean dituen hutsuneak identifikatzeko.</li> <li>- Badaki nola hobetu orain arte eginiko lana.</li> </ul>		

4. Saioa: Giza eskubideen bilakaera aurkezten		
<b>Helburuak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Giza eskubideen bilakaera ezagutu</li> </ul>
<b>Edukiak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azken mendeetako giza eskubideen konparazioa</li> <li>- Egindako lanaren ebaluazioa</li> </ul>
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzea</b>	<b>Materiala</b>
50´	Talde handian 4-5 kideko talde txikiak Banaka	Kartulina, margoak... Portfolioa
Garapena		
<p>Informazio bilatzen eta eskema edo taula sorten jarraituko dute hasieran.</p> <p>Behin bukatutik, lana aurkeztuko dute gainerako ikasleen aurrean.</p> <p>Portfolioa bete.</p>		
Ebaluazio Irizpideak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da, giza eskubideen bilakaera azaltzeko.</li> <li>- Gai da, eginiko lanean dituen hutsuneak identifikatzeko.</li> </ul>		

## 3.3.2.3. Arte Hezkuntza

1. Saioa: San Mames lantegian sakonduz		
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- San Mames lantegia ezagutu</li> <li>- Informazioa berregituratu</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- San Mames lantegiaren bilakaera eta produktuak</li> <li>- Informazioa bakoitzaren hitzekin idaztea</li> </ul>	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzea</b>	<b>Materiala</b>
50´	4-5 kideko taldeak Banaka	Ordenagailuak 3. Galdera fitxa <a href="#">Bideoa</a> Portfolioa
Garapena		
<p>Talde txiki bakoitzak, ordenagailu batekin, Busturiko Udalak lantegiaren inguruan eginiko bideoa ikusiko du eta fitxako galderak erantzungo ditu. Jarraian, talde handian komentatuko dute bideoan ikusitakoa eta zalantzak argituko dituzte.</p> <p>Portfolioa bete</p>		
Ebaluazio Irizpideak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Badaki noiz sortu zen lantegia.</li> <li>- Gai da, lantegiko produktuak izendatzeko.</li> <li>- Badakizki lantegiko produktuen ezaugarri nagusiak.</li> <li>- Badaki zeintzuk diren lantegiaren aurrekariak.</li> <li>- Badaki bere hitzekin adierazten jasotako informazioa.</li> </ul>		

2. Saioa: Lantegiko lanak interpretatuz		
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arte ekoizpenen ezaugarriak identifikatzea eta interpretatzea.</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arte ekoizpenen ezaugarrien identifikazioa</li> <li>- Baliabide artistikoen interpretazioa</li> </ul>	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzea</b>	<b>Materiala</b>
50´	4-5 kideko talde txikiak Banaka	<a href="#">Irudiak</a> 4. Galdera fitxa
Garapena		
<p>Irakasleak lantegiko produktu mota ezberdinen irudiak eramango ditu gelara inprimaturik. Talde bakoitzak, produktu mota bereko hainbat eredu aukeratu beharko ditu.</p> <p>Jarraian, galderen fitxa bete beharko dute taldeka, aukeratutako irudien ezaugarriak erreparatuz.</p> <p>Galderak erantzun ostean, taldekide bakoitzak zenbaki bat aukeratu du. Jarraian, jatorrizko taldea utzi, eta zenbaki bera aukeratu duten beste kideekin batuko dira, ordura arte interpretatutako informazioa elkar trukatzeko.</p> <p>Bukatzeke, jatorrizko taldeetara bueltatu, eta jasotako informazio berria amankomunean jarriko dute.</p>		

Portfolioa bete.
<b>Ebaluazio Irizpideak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da, arte ekoizpen ezberdinen ezaugarri fisiko nagusiak identifikatzeko.</li> <li>- Badaki arte lan mota ezberdinak ezberdintzen.</li> <li>- Gai da, arte lanak dituen ezaugarrien arabera, bere ekoizpen prozesua identifikatzeko.</li> <li>- Badaki, arte ekoizpenen ezaugarrien arabera, zertarako sortu ziren interpretatzen.</li> </ul>

<b>3. Saioa: Lantegiko lana birsortuz</b>		
<b>Helburuak</b>	- Arte ekoizpenen erreproduzioak sortzea	
<b>Edukiak</b>	- Arte ekoizpenen berregitea	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzea</b>	<b>Materiala</b>
50´	Banaka	Buztina Mahaia estaltzeko oihala
<b>Garapena</b>		
Aurretik landutako lantegiko produktu bat aukeratu eta hura erreproduzitzen saiatu beharko dira airez lehortzen den buztina erabiliz.		
<b>Ebaluazio Irizpideak</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da, arte lan originaleko ezaugarri nagusiak identifikatzeko.</li> <li>- Badaki ezaugarri nagusiak birsortzen.</li> <li>- Ezaugarri pertsonalak gehitzeko gaitasuna dauka.</li> <li>- Sormena erabiltzen du, bere lan propioa egitean.</li> </ul>		

<b>4. Saioa: Birsorkuntza apainduz</b>		
<b>Helburuak</b>	Arte ekoizpenen erreproduzioak sortzea	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arte ekoizpenen berregitea</li> <li>- Baliabide artistikoen erabilpena</li> </ul>	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzea</b>	<b>Materiala</b>
50´	Bakarka	Buztina margotzeko margoak eta pintzela Mahaia estaltzeko oihala
<b>Garapena</b>		
Aurreko egunean hasitako arte lan pertsonala dekoratzea. Eredu originalak jarraitu beharko dituzte, baina nahi izanez gero, ekarpen propioak gehitu ditzakete.		
<b>Ebaluazio Irizpideak</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da, arte lan originaleko ezaugarri nagusiak identifikatzeko.</li> <li>- Badaki ezaugarri nagusiak birsortzen.</li> <li>- Ezaugarri pertsonalak gehitzeko gaitasuna dauka.</li> <li>- Sormena erabiltzen du, bere lan propioa egitean.</li> </ul>		

## 3.3.2.4. Hiru ikasgaiak barne hartzen dituztenak

1. Saioa: Erakusketa sortu		
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasgai ezberdinetako lanak batu</li> <li>- Erakusketa prestatu</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ideien planifikazioa eta gauzatzea</li> </ul>	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzea</b>	<b>Materiala</b>
90´	4-5 kideko taldeak	Lanak Kartulinak, margoak, kola...
Garapena		
<p>Taldeka, orain arte ikasgai ezberdinetan hasieran proposatutako arazoa ebazteko egin dituzten lan guztietan oinarrituz, azken erakusketa nola egin pentsatuko eta hura sortuko dute.</p>		
Ebaluazio Irizpideak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da, proiektuak planifikatu eta gauzatzeko.</li> <li>- Ideiak eraginkortasunez adierazteko gaitasuna dauka.</li> <li>- Baliabide ezberdinak erabiltzen daki, transmititu nahi duena adierazteko.</li> </ul>		

2. Saioa: Ebaluazioa		
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egindako lana, prozesua eta parte hartzaileak ebaluatzea</li> </ul>	
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Prozesuaren ebaluazioa</li> <li>- Norbere ebaluazioa</li> <li>- Koebaluazioa</li> <li>- Irakaslearen lanaren ebaluazioa</li> </ul>	
<b>Denbora</b>	<b>Taldekatzea</b>	<b>Materiala</b>
50´	4-5 kideko taldeak	5. Ebaluazio tresnak Portfolioa
Garapena		
<p>Hasteko, talde txikietan batu eta gaia ebaluatzeko galderak erantzungo dituzte. Gero, taldekideen lana ebaluatuko dute taula betez. Jarraian, ebaluazio diana beteko dute irakaslearen lana ebaluatzeko. Azkenik bakoitzak bere portfolioko galderak erantzungo ditu.</p>		
Ebaluazio Irizpideak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da, ibilbidean zehar sortu diren zailtasunak identifikatzeko.</li> <li>- Badaki, sortutako zailtasunak gainditzeko estrategia ezberdinak erabiltzen.</li> <li>- Badaki lana hobetzeko proposamenak egiten.</li> <li>- Gainerakoak era egokian ebaluatzeko gai da</li> <li>- Norbere lanaz hausnartzen daki</li> </ul>		

## 4. Ondorioak

Garatutako GrAL honen marko teorikoa eta arazo egoeren proposamena bukatu ostean, zenbait ondorio nagusi atera daitezke. Alde batetik, gauza guztien modura, kultura



ondare kontzeptua ere etengabe aldatzen ari denez, ezinbestekoa da noizean behin erreferentziazko autoreen lan berri edo gaurkotuak kontsultatzea gai honetan eguneratuta egon nahi bada. Horrenbestez, beste behin, ezinbestekoa da aipatzea, oinarrizko kompetentzien garapenak daukan garrantzia funtsezkoa dela norbera bere kabuz ikasteko gai izan dadin. Era berean, gero eta izaera global, sistemiko eta holistikoagoa hartzen ari den heinean, hezkuntza arloan ere erabilgarritasun zein diziplinartekotasun handiagoak aitortzen hasi zaizkio, bai edukiak lantze eta bai oinarrizko kompetentziak garatze aldera. Halaber, hezkuntza maila guztietara zabaltzeko joera ere badago. Honek, kultura ondarea gizartaratzea eragiten du, diziplina jakin batzuetako adituek soilik ikertzetik, biztanleria osoa inplikatzera igarotzen baita.

Bigarren, daukan potentzialtasunari ahalik eta etekinik handiena atera nahi bazaio, ezinbestekoa bilakatzen da, baliabide gisa erabili nahi den kultura ondare elementuaren ezagutza sakona izatea. Gero eta hobeto ezagutuz, ikerketa lerro edo lotura gehiago antzemango direlako ondarearen eta bilatzen ari diren hezkuntza helburuak lantzen diren edukien artean. Honekin, ikasmaila bakoitzean eduki gehiago lantzea ahalbidetzeaz gain, ikasmaila ezberdinetarako eginiko proposamenen artean kohesio handiagoa izatea ere errazten du.

Hirugarren, lotura ikusten da urteotan gorantz doazen metodologia konstruktibisten eta ondare hezkuntza irakasteko proposatzen diren metodologiaren zein ikas-irakaskuntza estrategien artean. Honek erakusten du, norabide berean dihoazela eta oinarrizko kompetentziak garatzeko elementu osagarriak direla bata zein bestea.

Azkenik, potentzialtasun handia daukala aitortu arren, egungo hezkuntza dekretuetan ez dauka behar beste presentzia. Azaldu den bezala, ikuspegi erredukzionistatik erabiltzen da. Diziplina gutxi batzuetara mugatzeaz gain, nagusiki jarrerazko edukiak lantzeko soilik erabiltzen den elementu artistikotzat hartzen baita. Halaber, koherentzia falta antzematen da dekretu askok ematen dioten trataeran.

## **5. Mugak eta hobekuntza proposamenak**

Aitortu beharra daukat, nahiko pozik sentitzen naizela Lehen Hezkuntzako Graduoko GrAL honek suposatzen duen erronkan lortutako emaitzarekin. Gaiaren inguruan eginiko bilaketa bibliografikoan eskuratutako informazio anitzaren bitartez, kultura ondarearekiko ikuspuntua erabat aldatzea eragin baitit. Orain, kultura ondareak hezkuntzan daukan erabilgarritasun handia ulertzen dudalarik. Hala ere, badira bidean zehar aurkitu izan ditudan zenbait muga edo zailtasun. Batzuk, nire lan egiteko erari dagozkie. Beste batzuk, ordea,

kanpo faktoreei. Atal honetan zehar, horien inguruan hitz egingo dut. Era berean, lana hobetzeko proposamen aukerarik ere aurkeztuko dut.

Hasteko, lan ohiturei dagozkien ezaugarrien ondorioz izandako zailtasunak azaldu nahiko nituzke. Gauza berriak ikastea eta ezagutzea gustuko duen pertsona izan arren, maiz lanean hastea kostatzen zait. Era berean, garatutako lana berregiten saiatzen naizenez sarri, gehiegi hurbiltzen naiz lana entregatzeko epera. Honen aurrean, lagungarria izan zait oso tutoreak eta biok izan dugun dinamika. Hots, epe zehatzak finkaturik izan ez arren, laneko puntu ezberdinak garatu heinean, tutoreari bidaltzen nizkion feedbacka jasotzeko. Horrela tutoreak zuzenketak egin bitartean, hurrengo puntua garatzen jarraitzen nuen. Bigarren zailtasuna ere hasierarekin dago loturik. Lan honetan ohartu bainaiz, edozein marko teoriko edo esku hartze landu nahi dudanean, zailtasunak ditudala nondik hasi edo lana nola antolatu definitzeko. Azkenik, eraginkortasun eta diziplina gehiago lortu behar ditudala aitortu behar dut. Behin lanean hasita ordu luzez gustura aritu arren, sarri distraitzen naizenez, ez baitut ondo aprobetxatzen denbora. Hau hobetzeko, eraginkorra suerta lekidake arreta galduarazten dizkidaten elementuak baztertzea. Era berean, lanerako eta atsedenerako tartek finkatzea ere egokia izan liteke. Horrela, lanean aritutako denbora probetxuzkoagoa bilakatuko nukeela deritzot.

Kanpo faktoreei dagokienez, COVID-19ak sortutako pandemia da zailtasun nagusienak eragin dituena. Lehena, eta garrantzitsuena, lanaren bilakaerari dagokio. Hasieran, Busturiko Jose M<sup>a</sup> Uzelai eskolan aurrera eramateko esku hartzea diseinatu nahi nuen, baina osasun larrialdi egoera honen ondorioz eskolak itxi zirenez, neukan asmo hori baztertu eta lanari beste norabide bat pentsaraztea eragin zidan. Era berean, interneten informazio asko aurkitu daitekeen arren, badira liburu edota zenbait testu sarean kontsultatu ezin daitezkeenak. Konfinamenduagatik etxean egon behar izatean eta liburutegiak edo bestelako azpiegiturak itxita egotean beraz, alde batera utzi behar izan dut interesgarria neritzon bibliografia hori.

Beste muga txiki bat, gai aukeraketarekin lotuta dago. Normalean, gai aukeraketa azken ikasturte honetako matrikularekin batera egiten da. Nire kasuan, beste zenbait ikaskidek bezala, Leioako Hezkuntza fakultatetik fakultate honetara etortzeko lekualdaketa eskatzean, matrikula iraila-urrian egin nuen. Ordurako, egin dudana aipamenarekin lotutako gai guztiak aukeraturik zeuden. Ez diot, gai hau gogo txarrez aukeratu edo garatu dudala. Guztiz kontrakoa, gaia oso interesgarria deritzot eta gogotsu ekin dut uneoro. Gainera, gai hau landu ezean, ez nituzke eskuratuko jaso ditudan ezagutza asko. Eta are txarrago, nekez ezagutuko nuke kultura ondareak hezkuntzan izan dezakeen erabilgarritasuna. Aitzitik, interesgarria litzateke, ikasle bakoitzak bere aipamenarekin lotutako gaia aukeratu ahal

izatea. Honek, azken urtean landutakoan sakontzeko aukera paregabea eskaintzen baitu. Hala ere, aintzat hartzen dut, mota honetako lanen tutoretzak aitortutakoa baino lan karga handiagoa eskatu ohi duela. Horrenbestez, ulertzen dut ikasleek aukera hori izan dezaten, beraien interesez gain, GrALean parte hartzen duten alderdi ezberdinen lan karga eta bestelako aldagaiak ere kontuan hartu beharko lirakekeela.

Hasieran aipatu bezala, eginiko lanarekin kontent nagoen arren, badira hobetuko nituzkeen hainbat aspektu. Hasteko, arazo egoerak eskolan aurrera eramatea gustatuko litzaidake. Honekin, lana borobiltzeaz eta xede praktikoa erreala emateaz gain, proposamenen zuzentasuna eta egokitasuna ebaluatzea ahalbidetuko lekidakeelako. Era berean, erabilgarria litzateke zein aspektu indartu edo hobetu identifikatzeko. Bigarren, arazo egoeretan eskolatik kanpoko agente ezberdinen ekarpenik edo esku hartzerik gehitzea litzateke. Horrela, sistema irekiaren ezaugarri nagusi bat betetzeko. Hau da, eskola gizartera zabaltzea agente ezberdinekin elkarrekintzan aritzeko.

Hirugarren, proposamenen egokitasunari dagokionez, ikasleek prozesuan garrantzia handia hartzen duten heinean, baliteke horrela jardutera ohituta ez dauden taldeek zailtasunak izatea lanean aritzeko. Aitzitik, egokia deritzot lan autonomoagora eta informazio bilketara ohituta dauden ikasleentzat. Bestalde, 1-2 eta 3-4 ikasmailetako proposamenetan egin bezala, 5-6 ikasmailetarako ere, jarduera interdiziplinarrak proposatuko nituzke hurrengoan. Hasieran, kurtso horietarako jarduerak ikasgaika antolatzea aproposagoa izan zitekeela pentsatu arren, gerora, ikasgaiak uztartzen dituzten jarduerak planteatuz, diziplinartekotasuna hobeto islatzen dela uste baitut. Halaber, arazo egoera guztien bitartez, kultura ondarearen izaera holistikoa mantentzen den arren, proposamenen arteko kohesio edo lotura handitzea interesgarria litzateke.

Laugarren, marko teorikoan azaldu legez, gomendagarria da ondarearekin kontaktu zuzena izatea. Lanean proposatutako arazo egoeretan, zenbait material grafiko erabiltzeaz gain ez denez bestelako kontakturik egiten, San Mames lantegiko ekoizpen lanen bat lortzea edo, irteeren bitartez, Oñarte errota edo Mallukiza itsaserrota bisitatzea gustatuko litzaidake. Hala ere, sortutako produktuak lortzea ez da lan erraza. Dauden ereduak museoetan edo bilduma pribatuetan baitaude. Hau aldiz, aitzakia aproposa izan daiteke museoak hezkuntza prozesuan barneratzeko

## 6. Erreferentzia bibliografikoak

- Alivizatou, M. (2008). Contextualising intangible cultural heritage in heritage studies and museology. *International Journal of Intangible Heritage*, 3. 43–54.
- Bereiter, C. (1994). Constructivism, Socioculturalism, and Popper's World 3. *Education Researcher*, (23) 7. 21-23.
- Berritzegune nagusia. (d.g). *Arazo egoerak. Ezaugarriak. Oinarrizko Hezkuntza Ereduak. Eusko Jaurlaritza*. [https://www.berrigasteiz.com/site\\_argitalpenak/docs/321\\_curriculum\\_hh/3212016001\\_Pub\\_BN\\_arazo\\_egoerak\\_haur\\_hezkuntza/3212016001e\\_Pub\\_BN\\_arazo\\_egoerak\\_haur\\_hezkuntza\\_ezaugarriak\\_e.pdf](https://www.berrigasteiz.com/site_argitalpenak/docs/321_curriculum_hh/3212016001_Pub_BN_arazo_egoerak_haur_hezkuntza/3212016001e_Pub_BN_arazo_egoerak_haur_hezkuntza_ezaugarriak_e.pdf) -tik berreskuratua.
- Blanco, P., Ortega, D. eta Santamarta, J. (2003). El tratamiento del patrimonio en el currículum de la educación primaria. Realidades y desafíos. D. Ballesteros, C. Fernández, J. A. Molina y P. Moreno (Coords.), *El patrimonio y la didáctica de las ciencias sociales* (pp. 71-80)-en. Cuenca: AUPDCS-Universidad de Castilla La Mancha.
- Bruner, J.S. (1984). *Acción, Pensamiento y Lenguaje*. Alianza. Madril.
- Cohen, G. (1983). *Psicología cognitiva*. Alhambra. Madril.
- Cuenca Lopez, J.M<sup>a</sup>. (2002) *El patrimonio en la Didáctica de las Ciencias Sociales: análisis de concepciones, dificultades y obstáculos para su integración n la enseñanza obligatoria*. (doktoze tesia). Universidad de Huelva, Huelva.
- Cuenca Lopez, J.M<sup>a</sup>, Estepa Gimenez, J. eta Martin Caceres, M.J. (2011). El patrimonio cultural en la educación reglada. *Instituto del Patrimonio Cultural de España*. 5. 45-58.
- Cuenca, J.M<sup>a</sup> eta Lopez Cruz, I. (2014). La enseñanza del patrimonio en los libros de texto de Ciencias Sociales, Geografía e Historia. *Cultura y Educación. Revista de teoría investigación y práctica*, (26) 1. 19-37.
- Díaz Barriga, F., & Hernando Rojas, G. (1999). *Estrategias docentes para un aprendizaje significativo. Una interpretación constructivista*. México: Mc Graw Hill.
- Dumas- Carré. (1987). *La resolution de problemes en Physique au Liceé*. (doktoze tesia). Parisko Unibertsitatea. Gaulin, C. (2001). Tendencias actuales de la resolución de problemas. *Sigma*, 19, 51-63.
- Estepa, J. (2001). El patrimonio en la didáctica de las ciencias sociales: obstáculos y propuestas para su tratamiento en el aula. *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e História*. (30). 93-106.

- Escribano-Miralles, A. eta Molina, S. (2015). La presencia de la historia del arte en el nuevo currículum de la educación primaria. *Iber*. 79. 15-24.
- Fernandez March, A. (2006). Metodologías activas para la formación de competencias. *Educatio Siglo XXI*. 24, 35-56.
- Fontal, O. (2006). Los contenidos actitudinales en la enseñanza de la historia del arte. *Iber*, 49. 47-59.
- Fontal Merillas, O., Ibañez Etxeberria, A., Martínez rodriguez, M. eta Rivero Gracia, P. (2017). El patrimonio como contenido en la etapa de Primaria: del currículum a la formación de maestros. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 20(2). 79-95.
- García Valecillo, Z. (2009). *Revista de Turismo y Patrimonio Cultural*. (7)2. 271.280.
- González Monfort, N. (2011). La presencia del patrimonio cultural en los currícula de educación infantil, primaria y secundaria obligatoria en España. *Patrimonio cultural de España*, 5, 58-75.
- Harari, Y.N. (2015). *Sapiens. De animales a dioses*. Debate. Bartzelona
- Jiménez de Madariaga, C. (2002). La comercialización del Patrimonio cultural. *Actas VI Jornadas Andaluzas de difusión del Patrimonio Histórico*. Sevilla: Junta de Andalucía, 93-106.
- Hernández, F. X. (2003). El patrimonio como recurso en la enseñanza de las ciencias sociales. In: Ballesteros, E. eta beste batzuk (coords.), *El patrimonio y la didáctica de las ciencias sociales* (455-466). Cuenca: Asociación universitaria de profesores de didáctica de las ciencias sociales. Universidad de Castilla-La Mancha.
- Liceras Ruiz, A. (2017). Educación para una ética de la sostenibilidad del paisaje. *Revista UNES. Universidad, Escuela y Sociedad*. 2. 74-90.
- Llul Peñalba, J. (2005). Evolución del concepto y la significación del patrimonio cultural. *Arte, Individuo y Sociedad*, (17). 177-206.
- Lopez Cruz, I. (2014). *La educación patrimonial. Análisis de tratamiento didáctico del patrimonio en los libros de Texto de CCSS en la Enseñanza Secundaria*. (doktore tesia). Universidad de Huelva, Huelva.

- Lucas Palacios, L. (2018). *La enseñanza del patrimonio y de la ciudadanía en las clases de ciencias sociales: un estudio de caso en ESO*. (doktore tesia). Universidad de Huelva, Huelva.
- Marin-Cepeda, S., Garcia-Ceballos, S., Vicent, N., Gillate, I., eta Gomez-Redondo, C. (2017). Educación Patrimonial Inclusiva en OEPE: un estudio prospectivo. *Revista de Educación*. 375. 110-135.
- Mie, F. (2005). Acción y política en la República de Platón. *Signos Filosóficos* (8), 14. 9-34.
- Ministerio de Educación, Cultura Y Deporte. (2015). *Plan Nacional de Educación y Patrimonio*.
- Molina Puche, S. eta Calderon Mendez, D. (2009). Los criterios de evaluación de Geografía e Historia en segundo ciclo de la ESO: análisis curricular comparativo. *Didáctica de las ciencias experimentales y sociales*, (23). 37-60.
- Moreno Martín, G., Martínez Martínez, R., Moreno Martín, M., Fernández Nieto, M, I., Guadalupe Núñez. (2017). Acercamiento a las Teorías del aprendizaje en la Educación Superior. *Revista Uniandes Epistema*, (4)1. 48-60.
- Perales Palacio, F.J. (1993). La resolución de problemas: una revisión estructurada. *Enseñanza de las Ciencias*. 11(2). 170-178.
- Pinto, H. eta Molina, S. (2015). La educación patrimonial en los currículos de ciencias sociales en España y Portugal. *Educatio Siglo XXI*, 33(1). 103-128.
- Polya, G. (1989). *Cómo plantear y resolver problemas*. Editorial Trillas. Mexiko.
- Rizo Cabrera, C. eta Campistrous Pérez, L. (1999). Estrategias de resolución de problema sen la escuela. *Relime*. 2(3). 31-45.
- UE (1998). Recomendación del Consejo de Ministros relativa a la educación patrimonial.
- Vergara Ramirez, J.J. (2015). *Aprendo porque quiero. El Aprendizaje Basado en Proyetos (ABP), paso a paso*. Ediciones SM. Espainia.
- Von Bertalanffy, L. (1968). *Teoría General de Los Sistemas*. Fondo de Cultura Económica. Mexiko.
- Zabaleta Imaz, I. (2000). *Nazioa eta hezkuntza-sistema espainiarraren sorrera*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

7.

Eranskinak


### 2.2.1 Eranskina: Busturialdeko kokapen geografikoa



Iturria: Wikipedia, 2016



2.2.2 Eranskina: Zuhaitz genealogikoa



Iturria: González de Durana eta Barañano, 1987 (moldatua)

## 2.2.3 Eranskina: Enpresako akziodunak

ANEXO III

Accionistas de la Fábrica de loza de San Mamés de Busturia con especificación de las acciones que antes tenían y las que ahora representa cada uno, en virtud de la nueva escritura de Asociación otorgada en la misma Fábrica al día 25 de Febrero de 1849 antes D. Valentín de Ecenarro, Escribano de Guernica.

Sres. Socios	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)	(6)	(7)
Bulucua y yerno	93	465.000	63.409	528.409	105.682	634.091	316
Orbegozo e hijos	25	125.000	17.045	142.000	28.409	170.454	85
Mi. Ss. Chiirapozu	16	80.000	10.910	90.910	18.182	109.092	55
Pedro Sologastoa	12	60.000	8.181	68.181	13.636	81.817	42
Teodoro Maruri	8	40.000	5.455	45.455	9.091	54.546	27
Marcelino Orbegozo	8	40.000	5.455	45.455	9.091	54.546	27
Manuel Montero	5	25.000	3.409	28.409	5.682	34.091	17
Andrés Uriarte	4	20.000	2.727	22.727	4.545	27.272	14
Diego Abaroa							
Echebarria	3	15.000	2.045	17.045	3.409	20.454	10
Andrés Nardiz	2	10.000	1.364	11.364	2.273	13.637	7
	176	880.000	120.000	1.000.000	200.000	1.200.000	600

(1) Acciones antiguas.  
 (2) Su capital primitivo.  
 (3) Aumento por las 24 acciones de M.Decan.  
 (4) Suma de las dos casillas anteriores.  
 (5) Aumento de la quinta parte del capital anterior.  
 (6) Totales.  
 (7) Acciones que actualmente representan los accionistas.

Iturria: González de Durana eta Barañano, 1987

## 2.2.4 Eranskina: "Flow blue" teknika



Iturria: Busturiko Udala, 2018

### 2.2.5 Eranskina: Izenaren hasierako letrak



Iturria: Busturiko Udala, 2018 (moldatua)

3.1.2. 1-2 ikasmailetako fitxak

1. Portfolioa

Izena:.....

Data:.....

Saioaren izena: .....

Saio zenbakia: .....

1. Idatzi saioa betetzeko jarraitu dituzun pausuak:

Lehenengo,.....

.....

Gero,.....

.....

Azkenik,.....

.....

2. Irudia:

3. Zer ikasi dut gaur?


- .....

- .....

## 2. Laburpena

### San Mames lantegia

Duela urte asko-asko, gure aitona-amonak jaió baino lehen, San Mames izeneko lantegia zegoen Busturín. Lantegi hau oso berezia zen. Inguruko herrietan ez zegoelako antzeko beste lantegirik.



San Mamesen, etxerako platerak, ontziak eta beste produktu eder batzuk egiten zituzten. Gainera, errota eta eraikin ezberdinak zituzten Busturín eta inguruko herrietan. Busturín,



adibidez, Oñarte errota eta lantegiko labeak zeuden. Inguruko herrietan ere, beste errota batzuk zeuden: Mallukiza itsaserrota, adibidez. **Ba al dakizue non**

**zeuden errota eta eraikin hauek?**

Langile askok egiten zuten lan San Mamesen. Langile asko Busturikoak ziren. Baina, beste langileak inguruko herrietatik eta Bilbo bezalako hiri handietatik zetozen. **Hizkuntza berean hitz egingo al zuten langile guztiek?**

### 3. Fitxa

Izena:.....

Data:.....

**Busturiko zein tokitan zeuden fabrikako labeak? Borobildu**

Itsasbegin    Altamiran    Paresin    San Bartolomen    San Kristobalen

**Zein auzotan dago Oñarte errota? Borobildu**

Axpen    San kristobalen    Altamiran    San Bartolomen    Paresin

**Non dago Mallukiza itsaserrota?**

Busturin    Gernikan    Bilbon    Muruetan    Sukarrietan

**Zein hizkuntzatan hitz egiten zutela uste duzue?**

Euskara batuan    Etxeko euskarari    Gazteleraz    Ingelesez

**Herri guztietan egiten al da euskara bera?**

Bai    Ez

#### 4. Aurkezpenetarako ebaluazio fitxa

Izena:.....

Data:.....

Aurkezleen izena:.....

##### 1. Borobildu erantzun zuzena

Ondo ulertu al dira azalpenak?

Bai    Ez

Herriko auzo guztiak aipatu al dituzte?

Bai    Ez

Herriko auzoak ondo kokatuta daude mapan?

Bai    Ez

Ondo kokatu dituzte eraikin eta errotak?

Bai    Ez

Zer da gehien gustatu zaidana?

Nola azaldu duten            Mapa            Beste zerbait:.....

Zer hobetuko nuke?

Azalpenak            Mapa            Beste zerbait:.....

Ezer gehitu nahi duzu?

.....  
.....

## 5. Galdera fitxa

Izena:.....

Data:.....

**Zure gaia:** Ibaia erreka basoa mendia

Ba al dago ..... Busturin?

Bai Ez

Zenbat ..... daude?

1 2 3 4 gehiago badira, idatzi kopurua:.....

**Nola deitzen dira?**

- .....
- .....
- .....

**Non daude?**

Azaldu non dauden ibaiak:

.....

.....

.....

Egin irudia laguntzeko:



### 3.2.2. 3-4 ikasmailetako fitxak

#### 1. Portfolioa

Saioaren izena:.....

Data: .....

Saioaren azalpena:

.....

.....

.....

.....

.....

Zer ikasi duzu gaur?

- .....
- .....

Galdera berririk sortu zaizu gaiaren inguruan?

- .....
- .....

Gaiarekin lotutako ezer berririk ikasi nahiko zenuke?

- .....

Zer egin beharko zenuke hori ikasteko?

.....

.....

2. Fitxa

Taldearen izena:..... Data:.....

San Mames lantegia

1. Zer zen San Mames lantegia?

.....  
.....

2. Zer egiten zen bertan?

.....  
.....  
.....

3. Zer motatako produktuak sortzen ziren?

.....  
.....

4. Zein produkzio jardueratako adibidea da San Mames lantegia?

.....  
.....

5. Zertarako sortu zen lantegia?

.....  
.....  
.....


6. Ze lehengai erabiltzen zituzten?

.....  
.....  
.....

7. Zein sektore ekonomikotan kokatuko zenuke lantegia?

.....  
.....

### 3. Irudiak



## 4. Taula

Behatu irudiak eta saiatu taula betetzen. Gero, gehitu beste bi adibide.				
Produktuaren izena	Produktu mota Landua/lehengaia	Produktzio mota Artisautza/industria	Produktzio jarduera	Sektore ekonomikoa

**5. Planifikazio fitxa**

Taldearen izena:..... Data:.....

**Planifikazio fitxa**

Hautemandako beharra/interesa:

.....  
.....  
.....

Sortuko den produktuaren/zerbitzuaren izena: .....

Zein sektore ekonomikotan kokatzen da? zergatik?

.....  
.....  
.....

Produktuaren edo zerbitzuaren azalpena:

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

**Irudia**



Nola egingo duzue? Azaldu pausuak labur-labur

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

---

Aurreikusten duzuen materiala	Aurrekontua

## 6. Prezio Fitxa

Materiala	€/ unitatea
Kartulina zuria	0,25
Koloretako kartulina	0,30
Barra itsaskorra	1,5
Kola zuria	2
Margoak	0,75
Akuarelak	0,8
Errotulkiak	0,8
Guraizeak	2
Arkatza	0,75
Plastilina	7
Pintzela	0,9

\*LH3-ko ikasleek taula bera izango dute baina prezioa zentimotan idatzirik

7. Fitxa

Taldearen izena:..... Data:.....

Iragarkien ezaugarriak

Non ikus ditzakezue honelako testu motak?

.....

Zein da iragarkien helburua?

.....  
.....

Zer nolako elementuak erabiltzen dira? Irudiak, letrak, logotipoak...

.....  
.....

Nola bereganatzen du zure arreta?

.....  
.....

Zer motatako letrak agertzen dira?

.....  
.....

Esamolde edo hitz jokorik al dago? Idatzi adibideren bat

.....  
.....

Nola eta zertarako erabiltzen dira puntuazio markak?

.....  
.....

Besterik elementurik nabarmenduko zenukete?

.....  
.....



### 3.3.2. 5-6 ikasmailetako fitxak

#### 1. Portfolioa

**Izena:**

**Data:**

**Saioaren izena:**

**Ikasgaia:**

**1. Gaurko zeregina:**

**2. Pauso hauek jarraitu ditut:**

**3. Honetan zailtasunak izan ditut eta gehiago sakondu behar dut:**

**4. Hau ikasi dut gaurko saioan:**

**5. Hurrengo saioan egiten saiatuko naizena:**

## 2. Lantegiko gatazken testua

### San Mames lantegiko gatazkak

Pasa den XIX. mendean, Busturiko zenbait familiaren ekimenez sortutako San Mames lantegian buztinezko produktu ederrak sortzen ziren. Hala ere, sortu eta 20 urtera, itxi egin zuten fabrika. Itxiera honen arrazoirik nagusienak, barneko gatazkak izan omen ziren.

Lehenengoa, ekoizpen prozesuaren zuzendariekin sortu zen. Hasiera batean, Margaine izeneko frantsesa izan zen zuzendari. Gero, Decaen bezala ezaguna den beste zuzendari bat kontratatu zuten, Margaine kaleratuz. Hala ere, hortik gutxira, Margaenek bere lanpostua berreskuratu nahi zuela jakinarazi zien lantegiko buruei. Egoera honetan, hainbat tira-bira sortu ziren zuzendari bi hauen artean. Gatazka hauek, laneko ingurua asaldatu zuten.

Bigarren arazoa sortu zen, igandeetan ere lan egiteko eskaera egin zutenean lantegiko jabeek. Izan ere, badirudi langileek ez zutela bidezkoa ikusten proposamen hori. Igandeetan ere lan egiten hasi beharko balira, atsedean hartzeko denbora murriztuko litzaieke. **Pertsona orok atsedean hartzeko eta denbora libre izateko eskubidea izan behar duela uste duzue?**

Hirugarren eta azken gatazka, larriena izan omen zen. Decaen zuzendaria oso zorrotza zen langileekin. Horrez gain, langileek lan baldintza eskasak zituztela uste zutenez, grebak antolatu zituzten. Honi erantzuteko, lantegiko jabeek langileen jarrera hori onartezina zela uste zutenez, hainbat langile kanporatu zituzten.

Garai hartako lan baldintzek zeuzkaten eskubideekin zerikusirik zeukala uste al duzue?. Garai hartan eta gaur egun dauden **giza eskubideak** berak direla uste duzue?

### 3. Galdera fitxa

Taldearen izena:

Data:

Zer motatako produktuak ekoizten zituzten San Mames Lantegian?

Zein material erabiltzen zen?

Zein teknikaz baliatzen ziren produktuak apaintzeko?

Zeintzuk dira erabiltzen zituzten bi apaingarri eredu nagusiak?

Zein kolorez marrazten zituzten?

Imajina ezazue San Mames lantegia ezagutzen ez duen lagun batek, nolako produktuak egiten ziren jakin nahiko lukeela. Nola azalduko zenioke?

#### 4. Galdera fitxa

Taldearen izena:

Data:

1. Deskribatu produktua?
2. Ze produktu mota da?
3. Ze materialez uste duzu dagoela eginda?
4. Nola dago apaindurik?
5. Ze teknika erabiliz uste duzu apaindu dela? Eskuz, estanpazioa...
6. Zergatik?
7. Zer interpreta dezakezu lan horretatik? Kalitatea, erabilera...

## 5. Ebaluazio tresnak

Taldearen izena:	Data:
Gaiaren ebaluazioa	
1. Hasieran planteatutako egoerari erantzun diozuela uste duzue?	
2. Zailtasunik izan al duzue prozesuan zehar? Nola konpondu duzue?	
3. Interesgarria izan al da gaia?	
4. Erabilgarria izan al da San Mames lantegia?	
5. Zer da gehien gustatu zaizuna? Eta gutxien?	
6. Ba al duzu hobetzeko proposamenik?	

Taldekideen lana ebaluatzeko taula					
	1- Oso gutxi	2- Gutxi	3- batzuetan	4 Asko	5- Beti
Nire izena:	Data:				
	<i>Ikaslea</i>	<i>Ikaslea</i>	<i>Ikaslea</i>	<i>Ikaslea</i>	<i>Ikaslea</i>
Aktiboki parte hartu du taldeko zereginetan	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5
Idea berriak proposatu ditu	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5
Egin beharreko zeregin guztiak egin ditu	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5
Errespetuz jokatu du uneoro	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5
Bere ideiak azaldu ditu, gainerakoen nahiak zapaldu gabe	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5

Oharrak:

**Irakaslea ebaluatzeko diana**

**Izena:**


**Data:**

Era argian azaltzen du

Izan ditudan galdera eta zalantzak

Egoera interesgarriak planteatu ditu

Gelako girua aproposa izaten lagundu du



**Beste ezer gehitu nahi duzu?**

